

ELKARRIZKETA: ANA EIZAGIRRE • ESPERIENTZIA: ZULOAK, OHETXOAK  
ETA ETXETXOAK • GALDEIDAZUE: MARTA ENCINAS-MARTIN (UNESCO) •  
ITSAS ESKOLA • ATZEKO ATETIK: JOSEBA BARANDIARAN

**hh**  
**hik hasi**

**152**

**4 EURO • 2010EKO AZAROA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA**



**Euskal Giroitze Barnetegiak**

**25 urteko ibilbide emankorra**



# Heldu literaturari

www.elkarargitaletxea.com



**NEMESIOREN TRIKITIXA**  
Pako Aristi • Javi Kintana

+8 urte



**ATZERAKA NABIL**  
Lutxo Egia • Eider Eibar

+8 urte

## KANPOKOA NAIZ ETA ZER?

Seve Calleja • Eider Eibar

+8 urte



## BESTE GU

Asier Mendoza • Ivan Mata

+12 urte



## BUELTA BAT AITONTXUAREKIN

Xabier Mendiguren • Patxi Gallego

+10 urte



**ESAN, AMA, NORK EGITEN DITU UMEAK?**

Janosch

elkar



# aurkibidea



**8**  
gaia

## EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK

Inguru erdalduna zuten haurrei eta eskolaz kanpo euskaraz aritzeko aukerarik ez zutenei, astebeteko egonaldian euskaraz bizitzeko aukera ematea zuten helburu. Eta hori, modu dibertigarrian eta eskola kutsurik gabeko giroan.



**15**  
elkarrizketa

## ANA EIZAGIRRE SAGARDIA

EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea da Ana Eizagirre Sagardia. Azkenaldian sormena eta berrikuntza arloko ikerketa batean murgildurik dabil. CREAMOVA ikerketa europarrak eman dio horretarako bidea.

**5** editoriala

**6** kronika

**8** gaia

## EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK

25 URTEKO IBILBIDE EMANKORRA

**16** elkarrizketa

## ANA EIZAGIRRE SAGARDIA

EHUko irakaslea

**24** esperientziak

Zuloak, ohetxoak eta etxetoak

**32** galdeidazue

Hezkuntza munduko pertsona guztien eskubidea dela onartua dago. Zer egiten ari da hori lortzeko?

Marte Encinas-Martin, UNESCOren ordezkaria

**35** berriak

**40** nora joango gara?

Itsas Eskola

Lekeitioko "Trinkete Etxea" aterpepean

**42** Atzeko atetik

Joseba Barandiaran

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Lontxo Oihartzabal, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez, Matilde Sainz eta Amaia Vazquez. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZ S.A.L. Azaleko eta gai nagusiko irudiak: Euskal Girotze Barnetegiak. Elkarrizketako irudiak: Hik Hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2010-10-28). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskarak merezi du,  
hezitzaileentzat ona da  
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetu eta  
HIK HASI egitasmoa  
bermatu



**hik hasi**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
harpide zaitez!  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitaratzen ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala

## azaroa

### *Maitasun begirada behar da ongi hezi nahi bada*



**Haur batek zerbait larria jasan arren, gizakien laguntzarekin, afektuarekin, elkartasunarekin eta maitasun harremanekin gaindi lezake eta normaltasunean bizitzera irits daiteke.**

Hezitzaile gisa, behar-beharrezkoak dira gure begiradak duen garrantziaren eta haurren errespetuaren gaineko hausnarketa.

Begirada aldaketak ikasleekiko dugun jarrera errotik alda lezake. Izan ere, hezitzaileok sarri sentitzen dugu ikaslea edo gu biktima garela. Pentsa dezagun maitasunak mugitzen duela gure jokabidea. Ikuspegi berria hartuta, haurra ez da biktima ezta era suntsitzailan jokatzeko duenean ere, maitasunetik jokatzeko duen pertsona bat delako. Baina dena ez da hain zuzena eta ulerkorra.

Egia da, askotan, ikusten dugunean ikasleek arreta eskola ez den beste nonbaiten dutela, zera galdetzen diogula geure buruari: Non dute jarria atentzioa? Zerbait garrantzitsua dute, ziur, maitasunetik jokatzeko dutela pentsatzen badugu. Baina, norantz bideratzen ari dira maitasun hori? Gure ikasgelan agertzen duten atentzio eza, zurrerik, interesa beste nonbaiten kontzentratua dutelako da. Eta zer gerta-

tzen ari den bilatzea, aztertzea, aurkitzea ona litzateke, han, sorburuan eragiteko.

Hainbatetan uste dugu, arazoa konpontzeko, eskola curriculumak hobetzea eta metodo eraginkorragoak erabiltzea direla bidea. Baina gutxitan aipatzen da ikaslearen egoera fisikoa eta emozionala funtsezkoak direla mundua deskubritzeko eta burua garatzera dedikatzeke. Izan ere, bizi duten etxe-egoerak bere ongizate psikikoa asko baldintzatzen du. Horrek erakusten digu ikasgelakoak bakarrik ezin duela, etxe-egoerak aritu behar duela eskolak.

Batzuen ustez, neska-mutilak ongi garatuko dira, txikitatik, beren indargune, ezaugarri eta beharretatik abiatzen uzten bazaie. Barruko indar horiei garatzen uztea eta bidea egiten laguntzea da funtsezkoa. Aldiz, zailtasunak, arazoak eta abar epaitzen baditugu, beren garapen naturala zailtzen arituko gara.

Lehen esaten zitzaigun haurra 5 urtekin egin zegoela, hortik aurrera arazoak zituztenekin ezin zela gauza han-

dirik egin. Askotan, abandonatu egiten ziren eta hura zen beraiantzako benetako suntsipena. Gaur egun, gauzak aldatu egin dira hainbat girotan... Ikerketengatik badakigu tratatu txarra jaso duen haurrak traumarik gabe bizi daitekeela errua botatzen ez bazaio eta maitasunetzko laguntza eskaintzen bazaio.

Haur batek zerbait larria jasan arren, gizakien laguntzarekin, afektuarekin, elkartasunarekin eta maitasun harremanekin gaindi lezake eta normaltasunean bizitzera irits daitekeela.

Freud-en esanetan, gizakiak hiru sufrimendu mota jasan ditzake: naturaren hondamendiek eragindakoak, gorputza berak sortutakoak edo besteekiko ditugun harremanek egindagoak; horien artean, azken hori da kalte handiena egiten diguna.

Horregatik, Bartzelonan egin berria den "Maitasuna eta heziketa" jardunaldiaren halako aholkua agertu zuten behin eta berriro: Hezitzaileok maitasun begirada erabili behar dugu.

# kronika

Ahalmen urriko haurrak dituzten 15 familiak auzitara eramanez Frantziako Hezkuntza Ministerioa, haurrak eskolatzeko eskubideak urratzea egotzita. Legeak laguntza eman behar dela onartu arren, eskola-laguntzailerik ez duten 38 kasu daude Ipar Euskal Herrian. Aurrekontuen murrizketa dela eta, Frantziako Gobernuak eskola bizirako enpleguak sortu ditu, egoera prekarioan. “Handik” kolektiboak, ahalmen urriko haurren familiak, irakasleak eta laguntzaileak biltzen dituen taldeak, gogor salatu du hori. Berdintasun eredia atxiki nahi bada, ahalmen urria duten haurrei baliabide gehiago eman behar zaizkiela dio kolektiboak. Horregatik, “Handik” esan du ahalmen urriko haurren eskolatzeko eragozteagatik auzia hasiko dutela 15 sendik.



## Gipuzkoa eta Ipar Euskal Herriaren arteko elkarlana Lanbide Heziketan

Ikaslan Gipuzkoak (Lanbide Heziketa sustatzeko Gipuzkoako egitura publikoa) eta Pirineo Atlantiko Departamenduko Ofiziala Ganbarak (Chambre des Métiers et de l'Artisanat) “Mugaz gaineko Lanbide Heziketaren antolaketa, pedagogia eta kalitatea” deitu egitasmoaren berri eman dute Baionan.

Besteak beste, titulu bikoitza ematen duen mugaz gaineko lanbide formazioa sortzea helburu duen proiektu hori gauzatzeko sei ekintza nagusi definitu dituzte bi egiturek: hizkuntzaren ezagutza, irakaskuntza zentroen arteko lehenengo trukaketak bultzatu, irakasle eta artisauei zuzenduriko ikastaroak eskaini, bereziki harakin eta okin

sektoreetan ikastaro komunak sustatu, enpresa sorreran gazteen laguntza garatu, eta, ikastaroen arloan dauden beharrak aztertu.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan “artisauen sektore handia” dagoela aztertuta, eta Gipuzkoan, berriz, oraingoz “industria” dela nagusi, zehaztu ondoren, “elkarren artean asko” dagoela ikasteko esan dute. Ildo horretan, “eraginkorrak izateko, mugak gainditu eta lanbideak zabaldu nahi ditugu”, nabarmendu du Iñaki Mujika Ikaslaneko ordezkariak.

Bi egituren arteko elkarlanaren lehen fasean, elkar ezagutza bultzatu zuten gehien bat. Ekintzak zehazten dituen bigarren fasearen berri eman ondoren, “proposamen sakonagoak ematen” dituen hirugarren etapa ere izanen dela jakinarazi dute.

### Diploma

Titulazio komuna sortzearen helburuari dagokionez, European, Lanbide Heziketa arloan, azken urteotan urratsak eman ari direla esan du Mujikak. “Baina mantso doa. Aztertu behar dugu ikasleek zer behar duten mugaz bi aldeetako diploma lortzeko”, azaldu du.



**"Merkatura ailegatu eta profesional onak sortzea da zure helburua? Ala merkaturan lana izango duten profesionalak sortzeaz gain, mundu zuzenago baten alde ariko diren pertsonak nahi dituzu?"**

**Idoia Fernandez**



## **Bikaintasun zigilua eskuratu dute EHU eta NUP unibertsitateak**

Nazioarteko Bikaintasun Campus izendapena jaso dute Hego Euskal Herriko bi unibertsitateak: EAEko Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP). Horri esker, EHUk Tecnalia Korporazioarekin eta Donostia International Physics Centerrekin (DIPC) batera aurkeztutako Euskanpus egitasmoak 4 milioi euro laguntza jasoko du.

Finalera 22 proiektu iritsi ziren, eta haietatik 8 saritu dituzte. Guztira, 75 milioi euroren laguntzak banatuko ditu Espainiako Gobernuak.

Dirua ekimenak aurrera eramateko garrantzitsua dela onartu du Iñaki Goirizelaia EHUko errektoreak, baina garrantzitsuena proiektuaren "aitorpen ofiziala" dela esan zuen. Eurokanpuse-

kin, gainera, gizartearen etorkizuna "definituko" dutela baieztatu du Goirizelaia. Bestalde, Bordeleko Unibertsitatearekin (Frantzia) egindako "alianza estrategikoa" nabarmendu zuen, "mugaz gaindiko campusa" sortzeko helburuarekin.

### **NUP ere baikor**

Campus Iberus ekimenaren bikaintasun izendapenarekin, "aldaketarako une garrantzitsua" hasiko dela iragarri zuen Jose Maria Pintor NUPeko errektoreordeak. Lortutakoa "hurrengo lau urteetarako erronka eta ardura" izanen da NUPentzat, eta harekin batera aurkeztu diren Zaragozako (Espainia), Errioxako (Espainia) eta Lleidakako (Herrialde Katalanak) unibertsitateentzat. Pintorren iritziz, "nazioartean" kokatzeko aukera dute orain, eta lau unibertsitateak ekimen bateratu baten alde "elkarrekin lan egiteko" gai direla erakusteko.

Deustuko Unibertsitateak, Mondragon Unibertsitateak eta Nafarroako Unibertsitateak, berriz, ez dute EHUren eta NUPen zorte bera izan. Jaime Oraa Deustuko errektorearen ustez, "gizarte ekimeneko unibertsitateak neurri batean baztertu" dituzte, izendapena jaso duten unibertsitate denak publikoak direlako. Mondragon Unibertsitatearentzat, berriz, finalean egotea "oso garrantzitsua" izan da.

Nafarroako eskoletan erlijioa irakasten duten irakasleak kexu dira, erlijioaren alternatiba den Hezkuntza Arreta (HA) ikasgaia ingelesez eskaintzen hasi baitira hainbat ikastetxetan. Aurreko ikasturtean 10 ikastetxe baziren ikasgaia ingelesez eskaintzen zutenak, aurtten, beste hainbat gehitu zaizkie.

Erljioa irakasten duten irakasleek diotenez, ez da berdintasunean jokatzeko eta beraiek baztertuak sentitzen dira.

15 edo 20 urte erlijioa irakatsi dutenei ezin zaie orain, bat-batean, ingelesez eskaini dezaten eskatu. Dena den, inork ingeleza maila ona baldin badu, ez dute begi txarrez ikusten erlijioa hizkuntza horretan eskaintzea.

Erljio irakasleen esanetan, lanean hasteko prestakuntza handia eskatzen zaie, eta oso zorrotz aztertzen dituzte artzapezpikutzan ikasgaia eskaintzeko gai diren edo ez neurtzeko.

Gaur egun, 220 irakasle ari dira erlijioa irakasten Nafarroako eskola publikoetan.

# GAIA

## Euskal Giroitze Barnetegiak

*25 urteko ibilbidea*







## Barnetegien ibilbidea datuetan

**25 urte bete dira lehenengo Euskal Girotze Barnetegia sortu zenetik. Inguru erdaldu-na zuten haurrei eta eskolaz kanpo euskaraz aritzeko aukerarik ez zutenei, astebeteko egonaldian euskaraz bizitzeko aukera ematea zuen helburu. Eta hori, modu dibertigarrian eta eskola kutsurik gabeko giroan.**

**25 urteotan barnetegi gehiago ireki dira eta milaka haur eta irakasle pasa dira berauetatik.**

**25 urteotako joan-etorriak, erronkak, ilusioak... ezagutzera goaz barnetegietako arduradun motor diren monitoreen ahotik.**

Aurtengo irailean 25 urte bete dira lehenengo Euskal Girotze Barnetegia sortu zenetik, Euban. Gaur egun bost dira Hezkuntza Sailak zabalik dituen barnetegiak: hiru, Gipuzkoan: Alkiza, Elgoibar eta Seguran; eta bana, Araba eta Bizkaian: Barria eta Urduñan.

Barnetegiak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzutik sortu ziren **NOLEGA** programaren baitan (Euskararen **NO**rmalizazio **LE**gearen **GA**rapena), eskolentzako laguntza zerbitzu modura, helburu garbi batekin: inguru erdaldu-na duten haurrei, eskolatik kanpo euskaraz aritzeko aukerarik ez dutenei, aste betean euskaraz bizitzeko aukera ematea; eta, era horretan, euskararen erabileran eta euskararen aldeko motibazioan aurrerapauso bat ematea. Helburu nagusi hori lortzeko, beste helburu bat ere bere egiten dute barnetegietako monitoreek, bitarteko moduan: haurrek astea ondo pasatzea, eskola kutsurik gabeko jardunak eginez, dibertituz eta gozatuz. Horrekin batera, aukera eman zaie ikasleekin barnetegira joandako ira-

kasleei ahozkotasunean aurrera egiteko. Eta ikastetxeetara iristeko modua ere egin dute, ikastetxetik kanpoko egonaldietarako, propio, baliabide didaktikoak eskainiz (liburuak, jolasak, motibagarriak...).

Hogei urteotan 70.000 dira barnetegietatik pasatako eskola haurrak, 3.000 txandatan; 5.000tik gora, bertaratutako taldeak eta irakasleak. Horiek dira datuak. Zenbat poz, zenbat barre, zenbat lagun berri, zenbat egoera harrigarri, zenbat pasadizo gogoangarri? Eta zenbat hitz euskaraz, batzuek lehenengo aldiz eskolatik kanpo, eta zenbat ahalegin bide horretan? Horiek denak erantzun zehatzik gabeko galderak dira, eta erantzuna bilatzen hastekotan haur horietako bakoitzaren bihotzera eraman-go gintuzketenak.

Horiek denak gogoan dituztela egin nahi dute, 25 urteotako urteurrena aitzakiatzat hartuta, geldialditxo bat bidetan, elkarren berri izateko, atzera begiratu bat emateko eta, aurrera segitzeko asmo sendoarekin, indar hartzeko.

### Euskal Girotze Barnetegien sorkuntza eta lekualdatzeak ikasturtetan

1. Euba (1985/86) → Plentzia (1990/91) → Urduña (2009/10)
2. Gaztelu (1988/89) → Espejo (1999/00) → Barria (2007/08)
3. Alkiza (1990/91)
4. Elgoibar (1991/92)
5. Segura (1996/97) → Zerain (2007/08) → Segura (2009/10)



# G

# Euskal Giroitze Barnetegiak

## Hausnarketa eta erabakiak Aldaketa garaia

**Hogeita bost urte dira barnetegiak lanean ari direla ikasleak motibatzen eta girotzen haien arteko euskararen erabilera handitzeko.**

**Duela bizpahiru urte aldaketa edo eraldaketa prozesu bati ekin genion barnetegian, lan egiteko moduari dagokionez. Ikuspuntu aldaketa bat egin zen eta horrek dextekoteko aldaketa ekarri du.**

Urtetan egon gara haurrak, taldeak eta irakasleak hartzen, eta gehienetan emaitza onak lortu izan ditugu. Normalean haurren euskararen erabilera handitu egiten zen egonaldian eta, gainera, haurrak gustura egon ohi dira, ondopasatzen zuten, eta denbora luzez gu horrekin konforme egon gara.

Hala eta guztiz ere, konturatzen ginen gure lorpen hori oso iraupen laburrekoa zela, erabilerari dagokionez. Egonaldian erabilerak gora egiten zuen, baina bukatutakoan lehengora itzultzen zen. Epe laburreko emaitzeekin ari ginen, eta luzeagora joateko beharra sumatu genuen.

Iraupen laburreko aldaketa hura, barnetegian ematen zen aldaketa, behartua zen: “egin euskaraz,” “zertara etorri zarete hona?” eta antzekoak esanez horretaratzen genituen ikasleak. Baina behartutako aldaketa azalekoa zen, eta iraupen laburrekoa, eta gainera batzuetan giroa zapuztu egiten zen.

Zerbaiten bila hasita, konturatu ginen zein garrantzitsuak ziren emozioak eta sentimenduak, balioak, usteak eta



Txema MUJIKA

sinismenak. Barnetegietan beti landu izan dira, baina era inkontzientean, eta ikusi genuen era kontzienteagoan, sistematikoan eta planifikatuan landu zitzekeela.

Bi esaldi jarri genituen bulegoan: “betikoa egiten baduzu, betikoa lortuko duzu”; eta: “probatzen duenak badaki, probatzen ez duenak ez.” Zaila zena mementuetan hormara begiratzeko genituen, esaldiak irakurritan indarra eta adorea jasotzeko.

Ordura arte haurren euskararen erabilera neurtzen denbora asko pasatzen genuen, astelehenean honenbeste egiten dute, asteazkenean horrenbeste... Erabaki genuen haurrei aurrerantzean ez geniela etengabe portaera jakin bat eskatuko. Baztertu egin genituen erabilerari lotutako sariak eta zigorrak. Asko kostatu zitzaigun eta oraindik ere kostatzen zaigu. Inpresioa genuen erabileran eragiteko arma bat galtzen genuela, esku hutsik geratzen girela.

Irakasle askok esaten digute: “Gure ikasleek, behartuta ez bada, ez dute egingo”. Baina, gure ustekaberako, lehengo presiorik gabe ere emaitzak lehen bezain onak dira, eta hori irakasleek ere ikusten dute.

### Erabilera ahaztu eta pertsona jarri dugu erdigunean

Lehen epe laburrerako genuen ikuspegia, orain epe luzeagorako bihurtu da. Lan egiteko moduari eta emaitzei buruz hausnartzen hasita, konturatu ginen gure lan egiteko ikuspegiaren erdigunean **erabilera** genuela, erabilera zela muina eta ardatza gure jardunean eta agian hori aldatu behar genuela, erdigunean erabileraren ordez **persona** jarrita.

*Euskara inporta zait-etik zu inporta zatzaizkit*-era pasa ginen, hizkuntzatik hiztunera. Haurrek eta taldeak berak ikusi behar dute ez dela bakkari monitoriari euskararen gainetik ikasleak inporta zaizkiola. Oso garrantzitsua da haurrei mezu hori ondo iristea. Gerta daiteke guk erdigunean haurra izan arren, berak edo taldeak hori horrela ez sentitzea, eta orduan ez du ezertarako balio. Ez da garrantzitsua guk pentsatzen duguna, berak sentitzen duena baizik, berari iristen zaiona. Horregatik jarri genuen bulegoan hirugarren esaldia: “agian abaztuko dute esan diezuna, baina inoiz ez sentiarazi diezuna.”

Ikuspegi aldaketa horrek, erdigunean erabilera izan beharrean pertsona izateak, gure lan egiteko era aldatzea





ekarri du. Haurra eta taldea beste angelu batetik begiratzeak orain arte ikusten ez genituen alderdiak ikustea ekarri du, ate eta aukera berriak zabaltzea, baita lehen guretzat ezkutuan zeuden eta ikusezinak ziren zenbait haur ikusten hastea ere.

Hurrekin pertsonatik pertsonara komunikatzen saiatzen gara eta ez irakasletik ikaslera, botere harreman horizontalak bultzatu nahi ditugu eta haurra pertsona gisa baldintzarik gabe onartzen dugu, juzkatu gabe. Orain ematen ari garen saltoa da pasatzea guk haurrak euskara egin dezan nahi izate-tik, haurrak berak euskaraz egin nahi izatera.

Lehen, garai batean pentsatzen genuen: *“bau da jendea hau, euskaraz badakite eta hala ere ez dute egiten”*. Baina konturatu gara kontua ez dela hain sinplea zoritxarrez, ikasle bakoitzak duelako bere historia, bakarra, errepika ezina; ezin diegu denei berdin eskatu, ezta denekin berdindu ere. Euskaraz egitea edo ez, ez dago egin

nahi izatearen edo nahi ez izatearen baitan soilik, ikasle bakoitzak eta talde bakoitzak du bere balio sistema, bere sinismenak eta usteak, eta sistema horren parte bat da euskararekin duen lotura, atxikimendua. Beraz, esku artean darabilgun gaia ez da hizkuntza, baizik eta nola bizi duen pertsona horrek hizkuntza.

Baina ezin da haurrak euskararekin duen harremana aldatu inguruan dituen beste harremanak ukitu gabe. Horregatik da garrantzitsua taldearen ikuspegia eta talde barruko harremanen ikuspegia.

Aldaketaren abiapuntua norberaren aldaketa da, ikuspegi aldaketa, horrek portaera aldatzea dakar. Aldaketak sistema osoan eragiten du, eta behartua baldin bada ez du balio, oso azalekoa eta iraupen laburrekoa izango delako.

Gu orain hurrengandik hurbilago gaude, haurrak bere osotasunean hartzen ditugu kontuan, emozionalki ukitu nahi ditugu, emozioak era kontzientean landuz. Haiengandik jasotzen dugun erantzuna beroagoa da, goxoagoa. Haurra, *inporta natzaio* horretaz jabetzen denean, ireki egiten da, eta taldea ere bai.

### Gu geu ere aldatu gara

Aldaketa hori ez da erraza izan, eta tentsioa eta ezinegona ekarri dizkigu lantaldera, aldaketen aurrean beti sortzen direlako kezkak, ezinegonak, beldurrak eta seguritate ezak. Askotan galdetu diogu gure buruari: eta orain arte egin dugun guztia gaizki al zegoen? Ba, ez. Horrelakoetan, gure lantaldea mendizale talde batekin konparatu ohi dugu. Mendizale talde bat gara, denbora luzez Txindokira igotzen aritu dena eta gora iritsi garenean, disfrutatu dugu egindakoaz, handik ikusten dugunaz. Baina gure asmoa ez da Txindoki pun-

tan betiko geratzea. Orain handik jaitsi eta beste mendi bat igotzen ari gara. Baina Txindokira igo izan ez bagina ez genuen ikusiko oraingo mendia. Lehen goa egin genuelako egin dezakegu orain oraingoa. Guk ere gure lantaldean sistema bat osatzen dugu eta zati baten aldaketak besteetan eragiten du; gurean ere, aldaketa behartua bada, ez du funtzionatuko. Gure laneko aldaketa, aldaketa pertsonal batetik abiatzen da. Askotan aldatu nahi izaten dugu mundua gu aldatu gabe, eta hori ezinezkoa da.


Gure kasuan ikasleen eta irakasleen erantzunak eta balorazioak izan dira hasierako zalantzak eta beldurrak gaitzeko oxigenoa. Erabileraren emaitzak lehen goa bezain onak dira eta horrek lasaitasuna ekarri digu, erabileraren etengabeko neurketa gainetik kentzea, gainetik karga kentzea izan da. Gusturago ari gara, ilusio eta inplikazio handiagoarekin. Lantalde bezala ere kohesionatu egin gara eta malgutasun handiagorekin jokatzeko gure artean, guztion erritmoak errespetatuz. Gure lan egiteko era pazientzia eta malgutasun handiagorekin hartzen dugu, hemen ere behartzeak ez duelako balio.

Abiapuntuan gaude, asko falta zaigu, baina konturatu gara baliabide materialak eta programak oso garrantzitsuak izanda ere, horiek guztiak baino garrantzitsuagoak gu garela, gu geu garela baliabiderik garrantzitsuena, gu eta gure jarrera, uste eta balioak.

Iruditzen zaigu denon arteko sinergiak eraiki eta elikatu behar ditugula. Irakasleek eta monitoreok sistema bat osatzen dugu. Gure sistemak ere baditu bere balio, uste eta sinesmenak, eta sistema horren zati batean aldaketa gertatzen baldin bada, sistemaren beste zati batzuetan eragina izango du.



# Euskal Girotze Barnetegiak



Agustin MUJIKA

**Kaixo! Ni Agustin naiz, 50 urte ditut eta nire bizitzaren erdia barnetegiaren “trenean” pasa dut. Trenak hainbat geltoki izan ditu, eta aurrera egiteko erak aldatzen joan dira; baina trenak ez da inoiz gelditu. Geltoki bakoitzak markatu du trenbidea eta abiadura. Gaur egun eskolara itzuli behar izango banu ez nuke jakingo nondik hasi ere eta, seguru asko, orain ditudan baliabideekin dena hankaz gora jarriko nuke.**

Oso gaztetatik, 17 urte nituelarik, hasi nintzen udalekuetan (Bernedo, Goiatz...), eta monitore gisa nire lehenengo esaldiak euskaraz osatzen. Soldaduska gogor baten itzuleran eskolan lanean hasi nintzen. A ereduko 180 ikasleren Euskara irakasle nintzela pasa nituen lehen urratsak irakaskuntzan. Gogoan ditut hango saiakerak erdal giroko haur haiek euskal mundura zerbait hurbiltzeko (Satorra irratia, Olenzeroren jaialdiak, Takolorekin, kanpaldiak...). Hiru urte pasatuta, Matematikako irakasle izan nintzen urte batez Amezketan. Han sortu zitzaidan

barnetegi bat sortzeko gogo, haurrak eskolatik (klaseak, edukiak, notak...) ateratzea nuen helburu. Proiektu bat osatu nuen (planoak, argazkiak, programa...), oraindik etxean daukat gordeta, eta inongo lotsarik gabe Lakuara joan nintzen. Han elkartu nintzen, lehen aldiz, Iñaki Artola eta Joxe Mari Berasategirekin. Orduan jakinarazi zidaten barnetegi bat sortu nahi zutela. Gehiegi pentsatu gabe, maleta hartu eta Eubara joan nintzen (1985. urtea zen).

Euba! Uaaaa! Juxtu nahi nuena. Gazte-gaztea! Ilusioz beterik! Lankide zoragarriak! Denak kementsu eta gogotsuak! Hasieran ez nuen autorik eta askotan trenez joan behar izaten nuen. Goizeko 6:00etan pasatzen zen tren Lasarteko geltokitik (etxetik 2 kilometrorra zegoen), eta ia 3 orduko bidaia zen. Etxera itzultzeko, Durangoko ordaintokian jartzen nintzen, ea norbaitek eramaten ninduen Donostia, ertzainak etorri baino lehen. Gehienetan barnetegian bertan lo egiten nuen, kolore askoko sofa hartan. Gauean zenbat aldiz sartu ote nintzen haurren giletan gitarra eskuan haiek lotarazteko asmoz! Beti ez nuen lortzen, baina zein ederki pasatzen genuen! Gauak zaratsuak ziren aterpetxean, eta txabola antzeko lokal batzuk ere bazirenez (garai batean emakumeek soldaduska bertan egiten zuten-eta), literak eta guzti, hantxe egiten nuen lo.

Aterpetxean baziren ahuntzak eta antxumeak, 30 inguru, baina poliki-poliki galtzen joan ziren. Ez dakit zehazki zergatik. Behin, kristoren elurtea izan genuen, eta nik penaturik antxume batzuk txabolan sartu nituen. A ze gaua! Goizaldean hura zen kiratsa! Baseliza ere bazegoen eta guk dantzaleku eta jolastoki bihurtu genuen. Moketa berde bat erosi nuen ez dakit zer aurrekontutik (Iñaki haserretu zen). Gero

urte askoan erabili zen eta ospetsu bihurtu gure artean.

Bizkaia hobeto ezagutzeko aukera izan nuen: Gernika, Mundaka, Lekeitio... Batzuetan Zornotzan Xabier Amuriza bertsolaria topatzen nuen eta ilusio handia egiten zidan. Etxeko arduradunak, sukaldariak eta zaindariak bizkaieraz egiten zuten, eta askotan ez nien piperrik ere ulertzen. Nik beti bai erantzuten nien, eta aurpegi arraroa jartzen bazidaten “a, ez!” erantzuten nien. Egonaldiak luzeak eta gogorak ziren (batez ere irakasle batzuentzat), baina baita hunkigarriak ere, bizipenez beteak. Askotan, taldeak agurtzerakoan malkoak nabarmenak ziren denen begietan. Lortutako harremanak oso esutuak eta afektiboak ziren.

Nire bizitzako une alai eta gozoenetakoak Euban pasa ditut, baina gogorrenetakoak ere bai. Oraindik askotan gogoratzen naiz: taldean azkenetakoa zetorren, bere katuska urdin alaiekin, eta Gaztelugatxeko aldapan gora eskuetik helduta autobuseraino iristen lagundu nion. Ainhoa zuen izena. Aterpetxearen ondoraino heldu zen, baina ez zen sartzera iritsi. Geroztik, astero haur talde bat barnetegira heltzerakoan, bat gehiago kontaktatzen segitzen dut, Getxoko panpina gogoan. Zure ile hori luzea eta irribarrea ez ditugu inoiz ahaztuko. Gertakizun latza izan zen, bete-bete kolpatu ninduen, baina, zenbait buruhauste pasa eta gero, barnetegi eta haurren mundua utzi ordez, sasoi eta dedikazio gehiagorekin aurrera jarraitzea erabaki nuen.

Geroztik, luzea bezain aberatsa izan da ibilbidea: Gaztelu, Alkiza, Zearain, Segura... baina helburua ez da aldatu eta lanerako grina ere ez. Bejondeigula! 25 urte barru hitz egingo dugu.





Rosa Mari ARDANZA

**Kaixo, Rosa Mari naiz eta 25 urte daramatzat barnetegietan monitorea, eta gure orduko hasiera nola ikusten dudana kontatu nahi dizuet. 1985eko irailean hasi ginen Euban. Han elkartu ginen Agustin, Luisma eta hirurok proiektu berri bati helitzeko gogoz. Iñaki eta Jose Mari genituen behar genuen guztian laguntzeko prest.**

Ilusio handiz ekin genion lanari. Gogoan ditut orduko olinpiadak, indioen eguna (lumak, txabolak, aurpegi margotuak...), egiten genituen etxolak, piraten egunak, txotxongiloak, eta baita, lehenengo txandakoekin egin zuten "Loiolan jai jai" abestiaren bideoklipa, irrati saioak, bi orrialdeko eguneroko aldizkariak... Orduan oso modan zegoen Egan taldea eta guk ere asko erabiltzen genituen haien abestiak. Baita ETBren hasierako marrazki bizidunen "Arturo Erregea" eta "Dotakonon" abestiak ere.

Etxea txalet polita zen, inguruan etxolak zituena. Sarreran, orduan, monolitoa zegoen aurreko garaia gogo-

ratuz; "Sección femenina"ko etxea izan zen aurretik, eta oraindik han ziren uztarria eta geziak harrian zizelkatuta.

Susto batzuk hartu genituen, Gorlizeko Ibon autoak jo zueneko edo mutiko bat neguan igerileku ertzerara joan eta erori ondoren dena bustita agertu zitzaiguneko.

Baina une eder asko pasa izan ditugu. San Joan sua egin eta inguruan dantzan eta saltoka esate baterako, edo Olentzerori lana errazteko asmoz etxe aurreko zuhaitzean opariak eskegitzen aritzen ginenekoa.

Euskara bultzatzea genuen helburu nagusia, eta horretan ere gertatzen zitzaizkigun xeblekeria batzuk. Behin 8 bat urteko mutiko bat beste bat erdaraz ari zela esaten etorri zitzaigun eta guk:

-Zer esan du ba?

-Ay!

-Baina, ai euskaraz ere esaten da.

-Bai, baina "i griegarekin" esan du.

Nik orduan "ya está" esateko ohitura nuen eta "kitto" esanez zuzentzen ninduten.

Beste behin, pentsa zein motibatuta zeuden ikasleak, etxera bueltan gurasoak txaranga batekin zeuden haien zain.

Gogoan ditut Santimamiñera eta Butroira egindako igandeetako irteerak ere. Orduko egonaldia 12 egunekoak baitziren. Baita Dudagoiti auzora joaten ginenean hango baserri batean zuten Txurtxil izeneko azeria ere...

**Kaixo, Ibai dut izena; 1994. urtean, 12 urte nituela, Elgoibarko Aubi-xa barnetegira joan nintzen, Basauriko Arizko Ikastolako ikasle nintzela, astebete pasa. Nahiko *umelate* nintzen eta ez dut uste jakingo nuenik zertara nindoan ere, baina esperientzia haren inguruko sentsazio on eta gozoak gordetzen ditut nire baitan. Pozik egon nintzen, gustura.**

Hamasei urte geroago, irakasle-nomada naizela (karrera bukatutakoan, GPS-a eta iparorratza oparitu beharko lizkigukete), Alkizako barnetegira bidali naute lanera. "Baina nola barnetegira! Zertara? Han lotan?" - pasatu zitzaidan burutik, nagiairen mehatxu eta irainen artean. Baina hurrengo egunean autoa hartu eta, ordu eta erdi geroago, *Casadiosen* (barkatu, Alkizan) nintzen, herri txiki-txiki batean.

Astebete inguru pasadut han beharrean eta, egia esan, hezkuntzari buruz daukadan ikuspuntua aberasteko balio izan dit, hezkuntzarekin lotutako beste arlo batekin kontaktuan jartzeko, nire baitan ahal den heinean biak nolabait uztartzeko. Alkizan metodologia berri baten ikasketan eta praktikan murgilduta dabilta buru-belarri, eta oso prozesu interesgarria iruditut zait.

Dena dela, gehien irakatsi didana ez da izan metodologia edo hezkuntzaren ikuspuntua. Bada hezkuntzari bu-



# Euskal Girotze Barnetegiak

ruzko hausnarketa interesgarri hori guztia baino are garrantzitsu eta aberasgarriagoa izan zaidan zerbait: giza balioa.

Miresgarri eta eredugarri egin zait 25 urtez lan berean diharduten pertsonak zein nolako grina eta interesa daukaten euren beharra hobetu guran: betierehaurrei transmititu nahi dizkieten balioak nola hobeto helarazi, nola harremanak hobetu, nola egin, nola eragin, nola...

Bejondeizuela zuen lanagatik eta garragatik, eta bejondeizuela, batez ere, zuen eredu eta umiltasunaz, irakasle hasi berrioi transmititzen dizkiguzuen gogo eta balioengatik.

**Montse SORIA**



## 25 urteko ibilbidean, barnetegietako ikasleek eta irakasleek egin ohi duten ebaluazio saioetan esandakoetatik aukeratutako 25 esaldi dira hauek, bat urte bakoitzeko.

### IKASLEAK

1. Ez da aspertzeko astirik izan, ez nuen sinisten horren ondo pasako nuenik.
2. Euskaraz hitz egiten ondo sentitu gara.
3. Nigan konfiantza gehiago hartu dut. Beldurrik eta lotsarik gabe gauzak hobeto egiten direla ikusi dut.
4. Denok berdinarak gara, talde bat gara.
5. Etxean bezala egon gara.
6. Lagun hobek egiteko balio izan digu.
7. Ezin da hitzez adierazi, bizi egin behar da.
8. Bost egunetan euskaraz bizitzeko gai naizela konturatu naiz.
9. Bi talde ginen, neskak eta mutilak, baina zuei esker orain hurbilago gaude.
10. Taldea hobeto doa orain. Guztiok elkarrekin gehiago dibertitzen gara.
11. Euskal kantak asko gustatu zaizkit.
12. Konturatu naiz eskolatik kanpo ere, auzoan eta lagunekin, euskaraz egin dezakegula.
13. Talde lanean, gogo eta itxaropena jarrita, gauza asko lor daitezke.
14. Euskaraz hitz egitea dibertigarria da.
15. Talde lana ona da, beldurra galdu behar dugu.
16. Lotsa kendu dut besteen aurrean hitz egiterakoan.
17. Ikusi dut ezinezkoa zena jende askoren artean lortu egiten dela.
18. Sentimenduak azaldu ditut, emozionatu egin naiz.
19. Ez zaituztet inoiz ahaztuko, eta aste honetan egin duguna ere ez.

### IRAKASLEAK

20. Ikasleen arteko harremanak sendotu dira eta euskararen hazia barruan sentitu dute.
21. Atetik txiki sartu ginen eta handi ateratzen gara. Egonaldian egon egoten gara, gu egon beharrean barrukoa mugitu dugu.
22. Egonaldia aberatsa, erakargarria, alaia, bizia eta positiboa izan da denontzat.
23. Eskolan gehiago kostatzen zaigu pertsonak ikustea, ikasleak ikusten ditugu.
24. Egonaldia errepikatu nahiko genuke, gauza txar eta onekin.
25. Bizipen politak eta oroitzapen ederrak, luzaroan iraungo dute.

**Montse SORIA**





### Erraz esaten da 25 urte!

### 25 urte, saiakeran! 25, berrikuntzan! 25, ilusioari eusten eta berritzen!



Iñaki ARTOLA.  
NOLEGAko teknikaria

Administrazioko NOLEGA ataleko teknikari lanpostutik lotura handia sentitzen dut Euskal Giroitze Barnetegiarekin. Izan ere, hasiera-hasieratik Agustin eta Rosa Marirekin batera, 25 urte hauetako ibilbide osoa daramat egina neuk ere; modu desberdinean, jakina.

Edozein lanetan, baina nire ustez administrazioan bereziki, maiz galdeztzen diozu zeure buruari egiten ari zaren lan horren zergatiak, zentzuaz, garrantziak... Sarritan aurkitzen duzu zeure burua funtsean alferrikakoa dela uste duzun zerbait egiten, burokraziaren lan astunetan murgilduta batzuetan, sinesten ez dituzun zereginak egin beharrean. Eta susmoa dut administrazioan, zenbait lankidek administrazioko lana ikusteko beste aukerarik ez dutela. Nik, aldiz, zorte handia izan dut. Aukera izan dut lan hauetako askoren beste alde ere ikusteko, bizitzeko, gozatzeko.

Barnetegien kasuan, aukera izan dut, hiru hilabete behin bederen, barnetegietara joan eta bertatik bertara hango lana ezagutzeko, hango irakaslelagunekin harremanak izateko, haien ilusioak eta kezkek partekatzeko, haiekin batera ikasteko eta hazteko, ahal izan dudana neurrian ekarpenak egiteko, azken batean, talde honetan kide sentitzeko, proiektu zoragarri honen parte sentitzeko. Horregatik, idatzian taldearen barnean kokatuta arituko naiz.

Ezagupen eta bizipen hauek izateak nire administrazioko lanari ikuspegi aberatsa ere ekarri dio dudarik gabe. Uste dut uztardura hau oso komenigarria dela administrazioan ari garenonzat. Erabateko zentzua aurkitzen zaio, horrela, bulegoko lan hotz eta isolatuari.

Itziar Idiazabalek argi berdea eman zionean Joxe Mari Berasategik eta biok, artean bi gaztetxo, aurkeztutako Eubako proiektu pilotuari, nork pentsatuko zuen hain ibilbide luze eta abe-

ratsari ematen zitzaionik hasiera. Jakingo balute Itziarrek eta Joxe Marik 1985eko udaberri hartan ereindako haizak zenbat fruitu eman duen dagoeneko eta zein fresko eta indartsu dagoen. Proiektu pilotu gisa sortutakoa benetako ikerketa gune bilakatu da denborarekin, berrikuntza gune, aholkularitza gune, irakaskuntza gune, zerbitzu gune. Asmatu egin dute, nire ustez, Hezkuntza Administrazio desberdinek barnetegi hauei autonomia handia eskainiz: saiakerarako aukerak, ikertzeko tresnak, baliabide nahikoak... Erantzun ere soberan egin dute barnetegiak eta horrela jarraitzen dute gaur egun ere. Lan talde honek 1987rako jolas bilduma bat argitaratu zuen, 5.000 aleko tirada izan zuena. Gerora beste bitan argitaratu zen, beste horrenbeste alekoak. Guztiak daude agortuak gaur egun, baina materiala eskuragarri dago Internet-en bidez. Ehunka dira barnetegietan asmatu eta saiatu diren jolasak, tramankuluak, panelak... Milaka, horien



# Euskal Girotze Barnetegiak

bidez ukitutako bihotzak. Milaka, irakasleek jasotako ideiak edota materialak. Hasiera-hasieratik, teknologia berrien erakarmena baliatzen ere asmatu da barnetegietan: bideoak, grabazioak, ordenagailuak... Horrekin batera baina, pottoketan ibiltzea eta naturaz gozatzea ere helburu izan da gune hauetan, betiere, euskara eta euskal kultura ikasleen bizipen esparruetan era atseginean txertatzen ahaleginduz.

## Erronkak berrituz

Benetan sinesten dut ondo egin dela lana bi hamarkadetan barnetegietan. Ikusi besterik ez dago ikasle, irakasle eta guraoen balorazioak. Bikaintasunaren maila altua lortzen ari ginen 2000. urtearen inguruan: programa egokia, jolas erakargarriak, erabilera areagotzeko estrategia finak, lorpen neurgarriak... Eseri eta patxadaz aritzeko moduan ginen, nahi izanez gero. Baina orduan ohartu ginen, benetan, gainerako irakasleentzat eta hezkuntza sistemarentzat baliagarriak izan zitezkeela esperientzia honetan metatutako ekarpenak. Ez ginen lokartu eta erronka berrietan murgildu ginen. Hainbat material berritzailek ikusi zuten argia

orduan: Txango, Joan Zaku eta EGE maleta. Bide horretan asko ikasi genuen guztiok, ikasi ez ezik hazi ere egin ginen.

Ustez ondo egiten genuen hura bera ere zalantzan jartzeko gai izan ginen. Helburuak birformulatu eta estrategiak aldatu; pertsona-haurra, pertsona-irakaslea, pertsona-lankidea erdigunean kokatuz, erabateko aldaketa egiteko gai izaten ari gara. Orain bide honetan bikaintasuna lortu nahian gabilta. Hau da gure heldu aro honetako erronka. Izan ere, urteak eta egoerak ere ez dira alferrik pasatzen. Orain 25 urteko ikaslea eta oraingoa ez dira berdinak. Orduko gizarteak euskararen inguruan zuen pertzepzio makroa ere aldatzen joan da. Irakasle-ikasle harremana bera ere nabarmen aldatu da urteotan. Gazte-haur horien interesgune eta motibazio gaiak ere aldatu dira. Gu geu eta gure balioak ere aldatzen joan dira. Finean, ikasle-pertsonaren barnearaino iritsi nahiak ekarri ditu aldaketak.

Hizkuntzaren erabileraren auziari heldu nahi izan zitzaion 1985erako. Ordurako nabarmena zen gerora begibistakoa gertatu dena: eskolak, berak bakarrik, ezin du ezagutza eta erabilera



bermatu. Ezin zuten B ereduan, ezta A ereduan ere, jakina, baina D ereduan ere ez. Erabilera gertatuko bada, gaitasunaz gain, bestelakoak ere behar dira: aukera askotarikoak, bizipen gogoangarriak, taldea, gustuko emozioak, lotura afektiboak... Osagai horiek eskaintzen saiatu dira 5 barnetegiak 25 urteotan. Gaur egun, hori guztia ikasleari modu kontzientean eskaintzeaz gain, irakasleari gelarako baliagarri izango zaizkion estrategiak, ikuspuntuak eta metodologia eskaintzen saiatzen ari gara. Are gehiago, uste dut gaur gure eskolak hain beharrezkoa duen haize freskoaren apur bat behintzat baduela barnetegietan. Orain 25 urte saiakera zirenak gaur errealitate eta benetako laguntza-tresna dira gure hezkuntza sisteman.

## Lan talde iraunkorra eta sendoa giltzarri izan da

Berariaz azpimarratzekoa da hizkuntzaren erabileraren arlo honetan maila profesionalizatuan dagoen lan talde kualifikatu iraunkorrena eta sendoena dela Euskal Girotze Barnetegietako irakasle/monitore/teknikari/aholkulariek osatzen dutena. Nik dakidala, gainera, ez da hemendik kanpora, ezta nazio artean ere, maila honetako esperientziarik, ezta horrelako lan-talderik ere. Honek bihurtzen du lan talde hau erreferentzia gune eta ematen dio bera-







riazko garrantzia barnetegietan eta pertsona hauengan metatutako esperientziari.

Hausnarketa hau amaitzeko, proiektu honetan izan diren eta diren guztiak aipatu nahi ditut: hasteko, barnetegietatik pasa diren milaka ikasleak eta haien gurasoak, agintariak, zerbitzuaren burua, NOLEGAn izan ditudan eta ditudan lankideak, barnetegietan luze edo labur monitore (izan) direnak, barnetegietara etorrita ahalegin bere-

zia egin duten milaka irakasleak, aholkulari, koordinatzaile edota prestatzaile gisa ari zaretenak eta baita aterpetxe bakoitzean (izan) ditugun bestelako lankideak. Zalantzarik ez dut Maritxuk edo Elenik maitasunez egindako patata-tortillek ere izan dutela eragina. Bakoitzak berea jarri du proiektuan, bere mementuan, eta guztionak hortxe dirau gaurko errealitatean. Eskerrik asko eta zorionak guztioi 25. urteurren honetan!

Uste dut barnetegietan milaka hazi on jarri direla eta jartzen ari garela. Lan isila eta askotan aitormenik gabekoa izan da urte hauetakoa, baina gaur egun ondo egindako lanak eta norabideak ematen duen segurtasuna, poza eta lasaitasuna dugu indar iturri. Mementuz, gurea horixe da: ikasleei, gurasoei eta irakasleei gure onena eskaintzea eta, hori bai, talde honetako kide izateak sentiarazten digun harrotasuna jasotzea ordainetan.

## Euskara era dibertigarrian lantzeko hainbat material sortutakoak dira

25 urte horietan, hainbat material sortu dute. Hemen, bi aldizkari azal ipuin, jolas, abesti eta joko ugari jasozten dituztenak, CD eta guzti.



### Joan Zakuren kanta

Basoan oihua entzun dugu,  
isiltasunaren oihua,  
Joan Zakuk laguntza behar du,  
arriskuan du bizi-lekua.

Animalien bila goazen denok!  
gure lagunen bila,  
goazen denok, goazen!  
azkar, zatozte, gu gara  
Joan Zakuren koadrila.

Joan Zakuk ezin du bakarrik,  
gaizkilea indartsua da,  
zatoz zu ere, zatoz gurekin!  
laguntzera joango baikara.

Animalien bila goazen denok!  
gure lagunen bila,  
goazen denok, goazen!  
azkar, zatozte, gu gara  
Joan Zakuren koadrila.

Animalien bila...

Animalien bila...



# ana eizagirre sagardia

## *ELKARRIZKETA*

EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea

“Sorkuntzan oinarritzen den ikaskuntza ezin da daitekeenaren bila joan, etorkizunean litekeenaren bila baizik”







# ana eizagirre sagardia

## E

“**Heziketa sortzaileak ikasleen ekintzatik abiatu behar du, ezin du ikasleak pasibo izan. Beraz, egile nagusia ikaslea da. Bestalde, ikasketa prozesuaren egile nagusia ikaslea baldin bada, hezitzaileak bere zeregina berreraiki beharra dauka, laguntzaile, gidari edo orientatzaile rola hartuz.**”

EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea da Ana Eizagirre Sagardia. Azkenaldian, sormena eta berrikuntza arloko ikerketa batean murgildurik dabil. CREANOVA ikerketa europarrak eman dio horretarako bidea. Europako hainbat herrialdetako kideek osatutako talde batek osatzen du CREANOVA, eta Lanbide Heziketan, Helduen Hezkuntzan eta etengabeko irakaskuntzan berrikuntza eta sormena nola sustatu eta aplikatu daitezkeen ikertzen ari dira. Eta ikerketaren emaitza guztiak [www.creanova-project.eu](http://www.creanova-project.eu) web orrian ikus daitezke. Hezkuntzan aplikatzen den horrek, gero, gizarte osorako balioko du eta politikariei horren berri ematea izango da taldearen egitekoetako bat.

Beste asmo bat ere badute: Helduen Hezkuntzan, Lanbide Heziketan eta etengabeko prestakuntzan dabilen profesionalentzat sorkuntza prozesuak ikertzen aritzeko elkarte bat osatzea.

Garbi daukate sorkuntzak eta berrikuntzak giza garapena errespetatu behar dutela. Hortik abiatuta, hezkuntzan sormena eta berrikuntza bultzatzeko lau gako nagusi lantzea proposatzen dute: premia, askatasuna, elkarrekintza eta ingurunea.



### **Sormena eta berrikuntza. Gaur egungo ikas-irakaskuntzaren gako nagusi bihurtu al dira?**

Uste dut esan behar dela pedagogian eta hezkuntzan aspaldiko gakoak direla. Sormena eta sormena garatzen duen heziketa, XIX. mendetik, kezka izan da, batez ere eskola berriko hezitzaileentzat eta pedagogo askorentzat. Hemen, Euskal Herrian ere, berrikuntza pedagogikoak historia bat badauka, haurren askatasunean oinarritutako irakaskuntzak, bere mugekin, ibilbide bat egingo dauka. Beraz, horien lana ez dugu ahaztu behar.

Beharbada 100 urte hauetako desberdintasuna, XXI. mendean, horren zabalpena izan da: nolabait berrikuntza eta sormenean oinarritzen den irakaskuntza ez da eskola edo hezitzaile batzuen kezka soilik, baizik eta politikoena, Europako komunitatearena, enpresa eta ekonomia gizon-emakumeena... Gizartea ohartu da horren garrantziaz. Gakoak bihurtu dira garapen ekonomikorako, gakoak dira gizarte eta kultur garapenerako eta gakoak dira hezkuntzaren garapenerako ere.

### **Zer da sortzaile eta berritzaile izatea?**

Sortzaile izatea sortzea da, ez dagoen tokitik errealitate berri bat sortzea: ideiak, prozedurak, produktuak, egoerak, erlazio motak, eta abar. Galdera zaharrei erantzun berriak ematea eta galdera berriak planteatzea esanahi du sortzaile izatea. Bereiztu beharko genuke, halere, sortzaile handiei dagokien sorkuntza mota eta guztiongan dugun sortzeko gaitasunen artean, sorkuntza arruntaren artean. Sortzaile



izatea, neurri handi batean lotuta dago orijinaltasun eta jenialitatearekin, eza-gutza, kultur eta gizarte esparru zehatz batean haustura suposatu duten eta bide berriak ireki dituzten gizon-emakumeen sorkuntza ezohikoarekin. Baina, baita ere, gutako bakoitzarengan dauden sortzeko gaitasunekin, eguneroko bizitzak jartzen dizkigun erronka arrun-tei erantzuteko gaitasunekin. Hezkuntzaren ikuspegitik azken esanahi hori da gehien interesatzen zaiguna. Sormena guztiok dugun gaitasuna da, eta bizitza osoan zehar izan daiteke garatua. Hori da gure jardunaren ardatza.

Bestalde, kontuan izan behar dugu sorkuntza ez dela norbanakoarengan modu isolatuan sortzen. Sorkuntza gaitasun kognitibo, nortasun ezaugarri, eta faktore sozial, kultural eta historikoen arteko funtzionamenduaren ondorioa da. Norbait sortzaile da, testuinguruak sortzaile izaten uzten badio eta sortzailetzat hartzen badu. Izaera soziala du sorkuntzak, eta norbanakoa eta bere inguruko faktore sozio-kulturalen arteko elkarrekintzaren ondorioz gertatzen da. Hezitzaileak egun duen erronka gaitasun sortzaileak estimulatuko dituen ikaskuntza testuinguru egokia antolatzea da.

Aintzat hartu behar den beste elementu bat berrikuntzarena da. Gaur egun sormena eta sorkuntza berrikuntza kontzeptuarekin oso lotuta planteatzen dira. Berrikuntzak hasieratik oso lotura estua izan du merkatu ekonomiarekin (Osloko Manuala), eta Europar politikarako giltzarrietako bat izan da, Lisboako Deklarazioaz geroztik, batez ere. Enpresa munduan ideia berriak garatzeko eta aplikatzeko asmoarekin landu izan da. Gaur egun, halere, arlo publiko eta sozialarekin duen lotura gero eta nabarmenago azpimarratu izan da.

Berrikuntza, eta honi loturiko sorkuntza, garapenarekin dago erabat lotuta. Erantzun beharreko oinarritzako galdera bat planteatzen zaigu: zein sorkuntza eta berrikuntza mota nahi dugu, zein garapen modurako? Ekonomia gizabanakoaren ginetik jartzen duen



garapen mota bat edo gizabanakoa errespetatzen duen eta gizabanakoarengandik abiatzen den garapen ekonomiko eta sozial bat. Ikuspegi sozio-ekonomiko hori behar-beharrezkoa da sorkuntza eta berrikuntza interpretatzeko eta ulertzeko. Beraz, hor nolabaiteko jarrera bat hartu behar da.

### **Eta zein da gailentzen den jarrera? Zer garapen mota nahi da egungo gizarteak?**

Guztion ongizatea eta inklusioa baldin bada hezkuntzaren helburu, sorkuntzan eta berrikuntzan oinarritzen den ikaskuntza prozesu orok ardatz gisa hartu beharko lukeen berrikuntzak zera beharko luke: balio soziala sortzen duena eta behar ekonomikoek gain giza beharrak asetzen dituen. Jarrera horrek gailendu beharko luke, gure ustez.

### **Ikuspegi hori al dago zabaldua gaur egun? Ala ekonomia gizakiaren ginetik jartzen da?**

Nik uste dut Europan gero eta indar gehiago hartzen ari den ikuspegia dela. Eta baita berrikuntzaren eta sormenaren alderdi soziala azpimarratzen duen ikuspegia ere.

Beharbada, gure ardura horretaz ohartaraztea da. Ekonomialari eta politikari askori ihes egiten dio kontzeptu edo ikuspegi horrek, eta pedagogiatik hori da azpimarratu, ezagutarazi eta aldarrikatu behar duguna.

### **Zein dira sormena eta berrikuntza garatzeko funtsezko gakoak hezkuntzan?**

Ikas-irakaskuntza prozesuetan sormena eta berrikuntza sustatzen duten baldintzak lau oinarritzako gakoren inguruan bil ditzakegu: premia, askatasuna, elkarrekintza eta ingurunea. Oso gako sinpleak eta erabilgarriak dira, edozeinek ulertzeko modukoak. Lau gako horietan oinarrituta, ikaskuntza prozesuan gaitasun sortzaileak gara ditzakegula uste dugu, haurtzarotik helduaroraino, bizitzako ikaskuntza prozesu guztietan.

### **Azal ieazkiguzu lau gako horiek banaka. Lehendabizikoa, premia.**

Premiaz hitz egiten ari garenean sortzeko motorraz ari gara hitz egiten. Ikaskuntza prozesuetan kontuan hartu behar dugu nondik ari garen sortzen. Ikasleengan sorkuntza bultzatu nahi badugu, jakin beharko dugu zein den beraien sortzeko premia, zein motibazioek eramanen dituen sortzera.

Sorkuntzari buruz egin diren ikerketetan pasioa oso garrantzitsua dela ikusi da. Alegia, galdera bati erantzuteko edo zerbait asmatzeko, halako barne grina izateak sortzera bultzatzen du. Gauza bera gertatzen da artean, literaturan, zientzian edo pentsamenduan. Pasio edo motor hori oso garrantzitsua da, ezinbestekoa. Zenbat eta barrurago sentitu beharra, orduan eta errazago joiko du norbanakoak ekitera.

# ana eizagirre sagardia

E

“**Ikas-irakaskuntza prozesuetan sormena eta berrikuntza garatzeko lau gako garrantzitsu daudela ikusten dugu: premia, askatasuna, elkarrekintza eta ingurunea.**”

“**Ikaskuntza sortzailea eta herritzaileak hezkuntza espazio eta denbora berrien eraikuntza eta egungo hezkuntza eredu berdefinizioa eskatzen du.**”

## **Bigarren gakoa, askatasuna.**

Askatasunaz ari garenean zeraz ari gara: zein neurritan uzten zaion ikasleari bera izaten, bere burua adierazten. Zeren, azkenean, sortzea norberaren adierazpen bat da, adierazpen indibiduala edo komunitarioa izan daitekeelarik. Askatasunak zerikusi zuzena dauka norberak bere burua egiteko dituen aukerekin. Orduan, oso garrantzitsua da egiten uztea. Haurrari, gazteari, ikasleari, hezten ari denari... ikertzeko, probatzeko, hanka sartzeko, arriskatzeko, denbora eta espazioa antolatzeke... askatasuna eman behar zaio, epaiketarik edo baloraziorik egin gabe.

## **Elkarrekintza aipatu duzu hirugarren gako gisa.**

Elkarrekintza diogunean ezagutza eskuratzeko eta komunikatzeko esperientzietaz ari gara hitz egiten. Elkarrekintza besteekin lan egitea da eta ikasleari horretarako aukerak eskaini behar zaizkio. Are eta estimulagarriagoa izango da interes berdin batzuen inguruan elkarrekintzan jarduten direnak ezagutza arlo desberdinetakoak, formazio desberdina dutenak, herrialde desberdinetakoak, eta abar baldin badira.

Gero eta garrantzitsuagoa da besteekin komunikatzeko aukerak ematea



eta eza-gutza askotarikoak eskuratzeko aukerak eskaintzea.

## **Eta azkenik, ingurunea.**

Ikaskuntza gauzatzen deneko testuinguruaz ari gara kasu honetan. Hiru alderditatik azpimarratzen dugu ingurunearen garrantzia. Alde batetik, gizarte eta kultur mailako testuinguru gisa. Garrantzitsua da ingurunea harkorra izatea, alegia, sortzaile izaten uzten dizun ingurunea edukitzea.

Beste aldetik, ingurune fisikoa dugu. Ingurune fisikoa estimulagarria izatea ere garrantzitsua da: batzuentzat natura izango da, beste batzuentzat leku itxia edo isila, tailerra, mendia, itsasoa... eta baita zibernetikak eskaintzen duen espazio birtuala ere. Hori oso pertsonala izan ohi da, bakoitza leku zehatz batek estimulatzen baitu. Garran-





tzitsua da ohiko gelatik ateratzea, hor-  
mak puskatu eta espazio berriak aurki-  
tzea. Gelak errutina baitakar eta erruti-  
nak eta inertziak egokitzea eramaten  
zaitu, dagoenera, ez litekeenaren bila.  
Horregatik, errutina horretatik atera  
beharra dago. Malgutasuna behar du  
gela ulertzeko eta lan egiteko moduak.

Azkenik, ikaskuntzarako giroa az-  
pimarratu behar da. Giroa ere garran-  
tzitsua da: lan egiteko giro atsegina  
edukitzea, umorea, epaitzen ez zaituz-  
ten lekua izatea, etab. Horrek asko la-  
guntzen du sortzen edo behintzat bide-  
an jartzen.

### **Nola jar daitezke gako horiek praktikan?**

Guk hezkuntza praktika irakurtze-  
ko/interpretatzeko tresna bat eskaini-  
zen dugu. Hezitzaileak bere praktika  
irakur dezake lau gako horien arabera:  
zein premiatatik abiatzen den, zein as-  
katasun maila daukaten ikasleek beren  
burua adierazteko, zer elkarrekintza  
mota lantzen den eta nolako den ingu-  
runea. Hezitzaileak duen errealitatea  
eta dituen posibilitateak aztertu behar  
ditu, eta horren arabera bere praktika  
berrantolatu lau klabe horietan oinarri-  
tuz. Horretarako, hainbat teknika sor-  
tzaile daude. Behar izanez gero, ingu-  
ruan ditugun teknika sortzaile ugari  
txerta ditzake praktika berrian lau gako  
horiek indartzeko.

### **Zuek hori dena praktikan jarri duzue ikerketa europar batean. Zer-nolako ikerketa da?**

CREANOVA –Creative learning and  
networking for European innovation-  
ikerketa proiektua Europar Komunita-  
teko Education, Audiovisual & Culture  
Executive Agency-ren Lifelong Lear-  
ning Programme delakoaren barruan  
finantzatutako proiektua da. Batez ere  
bizitza osoko ikaskuntzako, Helduen  
Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako  
ikasketa prozesuen ikerkuntzan oina-  
rritzen da, eta arlo horietan jarri dugu  
martxan orain arte aipatutakoa. Nazio-  
arteko ikerketa da eta aniztasun handi-  
ko taldea gara. UPV-EHUko Gipuzko-

ako Campuseko gidaritzapean ari gara  
lanean hainbat Fakultate eta Eskolata-  
ko irakasleak (Filosofia eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea, Bilboko Majiste-  
ritza Eskola, Donostiako Majisteritza  
Eskola, Informatika Eskola, Psikologia  
Fakultatea, Arte Ederretako Fakultate-  
a), Euskal Herriko Tknika (Lanbide  
Heziketarako Berrikuntza Erakundea)  
eta Creativity Zentrum, eta hainbat he-  
rrialdetako unibertsitateak eta erakun-  
deak: Haaga-Helia Zientzia Aplikatu-  
en Unibertsitatea (Finlandia), Educode  
(Finlandia), Tallin-eko Unibertsitatea  
(Estonia), Edinburgo-ko Unibertsitatea  
(Eskozia), Universal Learning Systems  
(Irlanda), Tangram SRL (Bolzano),  
Conseil Regional Aquitaine (Akitania)  
eta Thuringian Institute of Applied So-  
cial Research (Alemania).

### **Zer egin duzue?**

Ikaskuntza prozesuetan sorkuntza  
eta berrikuntza sustatzen duten fakto-  
reei eta baldintzei buruzko ezagutza te-  
orikoa eta praktikoa eraikitzea da gure  
ikerketaren helburua. Kide garen he-  
rrialdeetan hezkuntza praktika onak  
atzeman ditugu eta, azterketa teoriko  
eta praktikoaren ondorioz, aipatutako  
lau gako horiek zehaztu ditugu. Ondo-  
ren espermentazio fase bat egin dugu  
lau gako horien inguruan. Italiako, Es-  
koziako, Finlandiako eta Euskal Herri-  
ko ikaskuntza programa berritzaile ba-  
tzuk hartu, lau gako horien baitan ira-  
kurri eta alderdi bakoitza garatzen saia-  
tu gara: askatasun mailan igotzen, elka-  
rrekintza mailan igotzen, premia maila  
igotzen premia horiek gero eta biziago-  
ak izan daitezen, eta ikasleen gaitasu-  
nak azaleratzen diren edo ez begiratu  
eta ikusten.

Euskal Herrian elkarrekintzan jarri  
ditugu hainbat eskolotako ikasleak eta  
irakasleak: Gasteizko Diocesanak eta  
Mendizabala lanbide eskoletakoak,  
Bilboko Eskurtzekoak, Durangoko  
Maristetakoak, Andoaingo bideo esko-  
lakoak eta Donostiako Usandizagako  
diseinu taldekoak. Lehenengo fasean  
elkarrekin lanean jarri ditugu jardunal-  
di batzuetan Zarautzen eta, bigarrenaz,



hainbat teknika sortzaile aplikatu ditu-  
gu gela barruko egunero jardunen ba-  
rruan.

### **Beraz, lan egiteko modua eraldatu diezue, bai ikasleei eta bai hezitzailei?**

Bai, neurri batean bai. Heziketa sor-  
tzaileak ikasleen ekintzatik abiatu be-  
har du, ezin du ikasleak pasibo izan.  
Beraz, egile nagusia ikaslea da. Bestal-  
de, ikasketa prozesuaren egile nagusia  
ikaslea baldin bada, hezitzaileak bere  
zeregina berreraiki beharra dauka, la-  
guntzaile, gidari edo orientatzaile rola  
hartuz.

Beste alde batetik, kontuan hartu  
behar dugu sortzea norbanakoaren  
adierazpena dela, eta hezitzaileak alda-  
tu egin behar du ikasleenganako duen  
konfiantza. Prest egon behar du ikasle-  
ak onartzeko eta, beharbada, gusta-  
tzen ez zaizkion gauzak entzuteko. Az-  
ken batean, sortzeak hori dakar; aska-

# ana eizagirre sagardia

# E

**“ Eskolak, nahiz eta eredu tradizionalen funtzionatu izan, ez du erabat suntsitu gutako bakoitzean dagoen indar sortzailea. Gauza da indar sortzaile hori gero eta beharrezkoagoa zaigula denoi gizartean mugitzeko, galdera zaharrei erantzun berriak emateko eta galdera berriak sortzeko norbanakoaren bizitza osoan. Orduan, derrigorrez indar sortzaile hori garatzeko ate gehiago ireki behar dira.**

**”**

tasun neurria igotzeak besteren onarpena ekartzen du. Eta beharbada hezitzaileak oso mesfidatiak gara horretarako, alegia, ikaslea onartzeko eta berea den hori bere horretan baloratzeko, epairik egin gabe.

Sortzea ideia berriak botatzea dela esaten dugu askotan. Ados, oso ongi, ideia eta proposamen berriak bota behar dira, baina gero hori errespetatzen jakin behar da, eta hori ahaztu egiten zaigu. Eta hortik abiatu behar da, errespetu horretatik. Horrek mentalitate aldaketa handia eskatzen du. Eta beldurrrak kentzea. Hezitzaileok ikasleak onartzeari beldur handia diogu.

Azken batean, sorkuntza eta berrikuntza sustatuko duen ikaskuntza garatzeak ohiko rolak, espazioak eta denborak berraztertzea dakar, orain arte indarrean egon diren hezkuntza eredu berdefinizioa, eta ikaskuntza espazio eta denbora berrien eraikuntza.

### **Nola moldatu dira? Zer ondorio atera dituzue?**

Gure ikerketa fasea amaitu gabe dago. Baina Euskal Herriko esperientziari dagokionez, oso nabarmena izan da ideia berriak estimulatzeko, proposamen berriak egiteko eta besteengandik ikasteko gai direla ikustea. Esperientzia oso interesgarria eta aberatsa izan da. Ikasleak konturatu dira beraien autoestimua izugarri areagotu dela, motibazioa ere bai eta proposamen berriak sortzeko gai direla.

Hezitzaileak edo irakasleak ere mundialak izan dira eta beraien prestutasuna erabatekoa izan da. Izugarri baloratu dute besteekin lasai hitz egiteko aukera izatea eta beraien arlotik kanpo dabiltzan beste profesionalekin lan egitea. Zentzu horretan, guretzat ere, unibertsitateko irakasleontzat, oso garrantzitsua izan da Lanbide Heziketako irakasle eta hezitzaileekin lan egitea.

### **Orduan, modu tradizionalen sortzen dena eta eredu berri honekin sortzen dena desberdina al da?**

Modu tradizionalen ere sortzen



da. Azken batean, sorkuntza prozesuak daude gutako bakoitzak sortzeko joera daukalako. Joe- ra hori, nahiz eta oztopoak asko izan, beti ateratzen da nonbaitetik. Eta eskolak, nahiz eta eredu tradizionalen funtzionatu izan, ez du erabat suntsitu gutako bakoitzarengan dagoen indar sortzailea.

Gauza da indar sortzaile hori gero eta beharrezkoagoa zaigula denoi gizartean mugitzeko, galdera zaharrei erantzun berriak emateko eta galdera berriak sortzeko norbanakoaren bizitza osoan. Orduan, derrigorrez indar sortzaile hori garatzeko ate gehiago ireki behar dira.

### **Sorkuntzak desberdintasuna edo aniztasuna dakar. Orain arte denak berdin izatea baloratzen zen. Orain desberdintasuna baloratzen al da?**

Bai, gaur egun desberdintasuna onartu beharra daukagu. Eta gainera, konturatu eta baloratu egin behar dugu desberdintasunen arteko elkarrekintza dela baliozkoa. Bestea niregandik des-





berdina izatea estimulagarria da sortzeko; eta alderantziz, homogeneizatzeak estimulazio falta edo motibazio horretan jaitea dakar. Desberdinen arteko elkarrekintza motor bat dela konturatzeara oso garrantzitsua da.

Elkarrekintza horrek errealitatearen interpretazio modu desberdinak jasotzeko aukera ematen digu, eta honek ideiak, prozesu, bide berriak eta ezezagunak sortzeko bidean jartzen gaitu. Sorkuntzarako elikagaia da.

Horrek, noski, tentsioa sortzen du. Denbora behar da elkar ulertzeko, errespetatzeko... baina behin tentsio hori gainditzen denean, espazio hori oso emankorra da denentzat. Lehen desberdina zen baztertu beharrekoa eta gaur egun desberdina da barneratu eta integratu beharrekoa. Eta desberdina esaten dudanean, zentzu guztietan esan nahi dut: ezagutza mailakoa, gaitasun mailakoa, kultur eta gizarte mailakoa.

### **Nora irits gaitzeko eredu berri honekin? Lehen, helmuga jakina zen. Orain?**

Bai, beharbada gure ezjakintasuna hori da eta, askotan, beldurra ematen digu horrek. Segurtasuna nahi dugu. Baina helmuga aurrez zehazten edo ixten baduzu, kontziente izan behar duzu sortzeko gaitasun hori ere itxi egiten duzula. CREANOVAko gure ikerketako txostenari jarri diogun izena "Litekeenaren bila" izan da. Sorkuntzan oinarritzen den ikaskuntza ezin da gelditu daitekeenaren bila, baizik eta etorkizunearan litekeen horren bila joan behar du. Eta hori apustu bat da. Azken batean, sortzeak beti dakar arriskua, denontzat. Eta ikaskuntza prozesuetan arriskua irakaslearentzat, ikaslearentzat... hezten ari denarentzat.

### **Zergatik merezi du aldaketa horrek guztiak?**

Batez ere bi arrazoigatik.

Hasteko, sorkuntzan eta sortzeko gaitasunetan eragiteak merezi du, azken batean, horrek gizakiak eta taldeak botereztatu hornitzen dituelako. Ez da ga-



rapen ekonomiko puntualetarako tresna bat. Garapen sozial orokor baterako tresna oso garrantzitsua baizik. Orduan, herritar guztiok sortzaile edo berritzaile izateko daukagun gaitasuna indartzeak ahalmen hori dakar: komunitatea indartzea, pertsona indartzea, haurra, gaztea... eta hori ezinbesteko tresna da edozein aldaketa sozialerako.

Garapen posibilitate handiak eskaintzen ditu, batez ere botere guneetatik kanpo dauden komunitateetarako, baztertuak dauden pertsonentzako eta bazterketa hori bizi duten pertsona eta kolektiboentzako. Horiek botereztatu eta indartsu egiteko tresna oso garrantzitsua da. Edonor joan daiteke litekeenaren bila.

Horregatik, gure asmoa da hezkuntza politikaz arduratzen denari hori ikusaraztea. Alegia, ahalmen hori ez dela onuragarria norbanakoarentzat edo enpresarentzat soilik, baizik eta gizarte osoarentzat dela balio bat. Azken batean, etorkizuneko erronkei denen artean erantzun behar diegu, ez bakarka.

### **Zein da bigarren arrazoia, merezi duela esateko?**

Nik uste dut ikaskuntza prozesuetan eta sorkuntzaren garapenean saiakera eta apustu berriak egitea oso emankorra izan daitekeela, batez ere eskolarekin bat ez datorren populazioarekin lan egiteko. Eskolak bota ditue-

nak berreskuratzeko oso metodologia interesgarria da, emankorra eta posibilitate handiak eskaintzen dituena. Hau da, eredu tradizionalarekin gustura sentitzen denarentzat, azken batean, metodo pasiboagoek balio dute. Baina aukera metodologiko interesgarria izan daiteke eskolan gustura ez dagoen ikasleekin edo eskolak baztertu edo botatzen dituen ikasleekin aritzeko. Eredu tradizionalarekin jarraitzea baino apustu interesgarriagoa eta emankorragoa da.

**Garrantzi handia eman diogu espazio berriak bilatzeari gure esperimentazioan. Martxoan hiru eguneko jardunaldiak egin genituen ikasleekin eta irakasleekin Zarautzen. Eta errutinatik ateratzeko, bada, hondartzara eraman genituen goizeko 9:00etan. Eta a zer hotza!! Izoztuta gelditu ziren denak. Oso gustura, baina... antolaketaren akatsa. Gela barruan jarduten ohituta gaudenez... ez genuen aurreikusi martxoan, goizeko 9:00etan, zer temperatura egin zezaketen hondartzan.**

## Zuloak, ohetxoak eta etxetxoak

### Eraikitzeko jarraibideak psikomotrizitatean (2-3 urteko haurrak)

**“Haurra nintzenean, Orion, nire jaioterrian, aitonak hondartzara eramaten gintuen paseatzera. Hondartzaren barnealdean zeuden zulo handi batzuek erakartzen ninduten. Horietako batean ezkutatzen nintzen, etzanda, eta nire gainean zabaltzen zen zeru espazio handiari begiratzen nion, inguruan zegoen beste guztia desagertzen baitzen. Oso babestuta sentitzen nintzen. Baina, zertatik babestu nahi nuen?”**

**(Oteiza, 1963, 75)**



Elena HERRAN, Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saila. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Duela 11 urte, 2 urteko neskato batek, aretoko zentzu-mugimenezko jolaserako eremuan jauzika ibili ondoren, eskutik heldu zidan eta "etxetxo" bat eskatu zidan. Gainerako haurrengandik urrutiratu ginen eta, aretoaren beste muturrean, etxetxo bat egin nion aparrezko prismekin. Alboetako bi horma garaiagoak eraikitzen ari nintzen bitartean, erdiko prismen ilararen gainean etzan zen. Berehala, dozena erdi bat haur edo gehiago inguratu ziren: batzuk sartu egin ziren eta espazioa eta elkarizketa partekatu zituzten etxejabearekin; bien bitartean, beste batzuk, mutilak gehienak, etxetxo puskatzen aritu ziren. Kalteak konpondu ondoren, hainbat dorre eraiki nituen etxetxoaren aurrean, bisitarien bulkadak bideratzeko; gero, etengabe lurrera erortzen ziren prismak antolatu

egin nituen. Bien bitartean, bi neskato etxejabearen ondoan etzanda zeuden, harekin berriketan.

Eraikitzeko eta sunsitzeko jolasa hasi eta 20 minutura, bertikalean ezarritako aparrezko arrabolean sartzeko eta irteteko jolasean murgildu ginen, eta haurrak etxetxotik irten ziren. Haur bakarra gelditu zen etxetxoan, etxejabea, hain zuzen, eta aurrean zuen jolasari arretaz begiratzen zion arren, aparrezko prisma baten gainean eserita gelditu zen. Kamera haurra zegoen tokirantz zuzentzerakoan, ilea ukitu eta, lotsatu samar begirada jaitsi ondoren, agur egin, eta esan zuen: “Kaixo, etxetxo bat dut”. Kubo bakar baten gainean eserita zegoen, eta, hasieran, hauxe pentsatu nuen: “Baina, non du neska honek etxetxo? Kubo kaskar baten gainean eserita dago, ez du beste ezer inguruan.” Haurrak ez zuen jada etxe fisikoaz hitz egiten, “etxetxo” bere buruan zegoen. Sekuentzia osoak ordubete iraun zuen, saioa amaitu arte. Orduz geroztik neskato horrek jauzi gutxi egin zituen, baina etxe asko eraiki zituen, gero eta sendagoak, osatagoak, egonkorragoak, iraunkorragoak, eta gero eta garatuagoak.

Bizitzaren opari hura bere horretan geratu zen, une egokiaren zain, eta orain, jauzia aztertu ondoren, hura lantzeko unea iritsi da. Lanean hasi garenean beste opari bat jaso dugu, gogoe-ta honen hasieran agertzen den Jorge Oteizaren aipamena, hain zuzen. Espazioaren hutsunea eta okupazioa dira XX. mendeko euskal eskultore bikain horren kezka nagusietako bi. Ez dugu



inola ere eskultorearen lana eta kezka azaltzeko asmorik. Apaltasunez, haren haurtzaroko pasarte bat berreskuratu besterik ez dugu egin nahi izan, lotura handiagoa baitu hizpidera dakarren une ebolutiboarekin beste ezerekin baino.

Bi bideo kamera digital soinean hartuta, psikomotrizitate gelara itzuli gara, 2-3 urteko haurren gelako gune sinbolikoan garatzen den eraikuntza jarduera oro grabatzeko eta sistematikoki aztertzeko, behaketa metodologian oinarrituta betiere, eta oso emaitza interesgarriak lortu ditugu. Emaitzarik interesgarriena eta garrantzitsuenak hauxe izan da: ibilbide metodologiko zorrotz baten ondoren, 2 urteko haurren eraikuntza jarduera ebaluatu dugu. Ez dugu deskribatu, ez dugu interpretatu, ez dugu kontatu, justifikatu ere ez dugu egin. Ez dugu aparteko ezer aurkitu. Baina funtsezkoena hauxe da: jarduera horren hainbat ezaugarri azaldu ditugu, lortutako emaitzek horretarako aukera ematen baitigute.

### Zer behatu dugu

Ez dugu eraikuntzak egiteko jokabide eredurik aurkitu, baina aztertu dugun taldeak jarraibide finko batzuk erakutsi ditu. Aukeratutako lagina osoaren % 30 izan da, taldea oso handia eta bizia baitzen. 24 haurretatik bik ez dute inolako eraikuntzarik egiten. Neska bat akitu arte jauzika aritzen da, eta beste mutil bat, funtsean, saioetan parte hartzen duen hezitzaile batekin ahal beste harremana ezartzen saiatzen da. Bi haur horiek hipotonia nabarmena dute, hipotonia horrekin lotutako jarduera kontrakoa den arren: batek jauziak sortutako mugimenduaren plazera barneratzen duen bitartean, besteak heldua behar du bere burua orekatzeko (Wallon, 1985).

Bederatzi haurrek emaitza onak



lortzen dituzte behatutako jokabide guztietan edo jardueren hainbat zati berezitan. Zehazki, hiru proposatzen ditugu: prestatzea, gauzatzea eta amaitzea; eta horiez gain, horien arteko nahasketak, eraikuntzan proaktiboak direla adierazten baitu horrek: asko eraikitzen dute eta maila asko erakusten dituzte irizpide bakoitzean (kideek jokabide antzekoa dute: begirada, materiala, eraikuntza mota, proaktibotasuna, etab.). Parte hartzaile batek lau modalitate erakusten ditu irizpide bereberetan, eta horrek, proaktibotasuna adierazteaz gain, egoeren arabera malgutasuna eta egokitasuna ere adierazten ditu. Zehazki, gehien eraikitzen duen haurra da, eta bereiz aztertu dugu. Haur horren emaitzak beste batean azalduko

ditugu.

Oro har, eraikuntzan eta beren espazioa bilatzerakoan oso proaktiboak ez diren haurrek beste etxetxo batzuk bisitatzen dituzte. Ez dira zuzenean joaten, itzulituruka ibiltzen dira (Wallon, 1980), eta bisitak egoeraren arabera edo iraunkorrak izan daitezke, eraikuntzaren erakargarritasunaren, eraikuntza horren jabearen eta bisitariak imitatzeko eta etxeetan sartzeko duen gaitasunaren arabera (Rizzolatti eta Sinigaglia, 2006).

Taldeko kideen heren batek (8) eraikitzen jarraitzen du, egiten dituen eraikuntzak suntsitzen dizkiotenean ere. Datu horrek honako hauek berresten ditu: batetik, bulkada eta erasokortasuna heldutasun faltari eta gauzatze-

ko gaitasun faltari lotuta daude; eta, bestetik, haurren jarraitutasuna. Hamaita haurrek eraikitzen jarraitzen dute, eta beste lauk beren erabakiz uzten dute bertan behera eraikuntza lana. Beraz, horrek adierazten du errazagoa dela jarraitzea beste norbaitekin lehian ari garenean, norberak bere ekintzarekin autonomiaz aurrera egitea baino.

Bi jokabide ikus daitezke, eta bi jokabide horien arteko lotura bereziki esanguratsua da bertikaltasuna sinbolikoki eskuratzeko garaian: haurrak begirada autozentratua duenean—begirada eta mugimendua txandakatzen ditu ekintzaren arabera egokitzeko, eta geldirik dagoenean egiten duen eraikuntza bertikala izaten da, dorreak egiten ditu. Begirada periferikoa bada begiak gorputzaren aurretik doaz eta ekintza ez-egonkorra da, aldiz, eta mugitzen bada, bide edo segida horizontalak eraikitzen ditu, espazioan egiten duen mugimenduaren hedapen moduan (Wallon, 1979). Gainera, inguruko begirada edo begirada periferikoa, haurra geldi egonda ere, eraikuntza bertan behera uztearekin lotzen da, eta begirada autozentratuak, aldiz, haurra geldi dagoela, beste ondorio hau dakar: haurrak elementuak eranstean jarraituko du egindako eraikuntza erori arte, edo, bestela, haurrak berak suntsituko du eraikuntza, proaktiboki, edo alde egingo du, beste suntsizaileraren bat modu mehatxagarrian hurbildu baino lehen.

Hiru dimentsioko eraikin gehienak saioaren bukaeran egiten dira. Horrek, berriro ere, bulkada erasokorraren eta psikomotrizitate saioaren bilakaera berresten du: eraikuntza egonkorrenak eta konplexuenak beharrezkoa dute lasaitasun psikologikoa edo pertzepziozko jarrera (Tran Thong, 1979; Wallon, 1985); eta hori bateraezina da hasierako mugimenduaren asaldurarekin, bai azaleratzeko bai denboran eta espazioan irauteko.

Azken batean, egindako ikerketak, 2urteko haurrengan, psikomotrizitatea lantzerakoan, eraikuntzan zentzu-mugimenezko ekintza ekintza sinboliko bihurtzeko lehenengo faseak erakus-

ten ditu, eta, horrez gain, joerak, hedatutako ekintza mailak eta eraikuntza gero eta maila sinbolikoagoetara eramateko jarrera ere erakusten du.

Bigarren urteko eraikuntza aztertzen hasiko gara orain, eta haurrak zertatik babestu behar duen aurkitzen badugu, kontatuko dizuegu. ●

## Erreferentziak

- OTEIZA, J.: *Quousque tandem! Ensayo de interpretación estética del alma vasca*, Iruñea, Pamiela, 1963.

- RIVIÈRE, A.: Origen y desarrollo de la función simbólica en el niño. In J. Palacios, A. Marchesi, eta C. Coll, (Konp.). *Desarrollo psicológico y educación, I. Psicología Evolutiva* (113-130. or.). Madril: Alianza, 1990.

- RIVIÈRE, A. & SOTILLO, M.: *Comunicación, suspensión y semiosis humana: los orígenes de la práctica y comprensión interpersonales*. In M. Belinchón, A. Rosa, M. Sotillo, I. Maricha-

lar (Konp.). Angel Rivière. *Obras escogidas Vol. III. Metarepresentación y Semiosis* (181-201. or.), Madril: Médica Panamericana S.A, 2003.


- RIZZOLATTI, G. & SINIGAGLIA, C.: *Las neuronas espejo. Los mecanismos de la empatía emocional*, Barcelona, Paidós, 2006.

- TRAN-THONG: La théorie des attitudes de H. Wallon et ses conséquences éducatives. *Les sciences de l'éducation*. (Spécial), 237-275, 1979.

- WALLON, H.: *Los orígenes del carácter en el niño. Los preludios del sentimiento de personalidad*. Buenos Aires, Nueva Visión, 1979.

- WALLON, H.: *Psicología del niño. Una comprensión dialéctica del desarrollo infantil*, Madril, Pablo del Río, 1980.

- WALLON, H.: *La vida mental*, Barcelona, Crítica, 1985.







# Bazen behin...

Mahai-jolasa

4 ZAILTASUN MAILA

- Hasiberriak
- Jarraitzaileak
- Adituak
- Profesionalak

6+

Galdera-erantzunak  
bost ataletan banatuta:

- Zirkulazio-aparatua
- Nerbio-sistema
- Digestio-aparatua
- Inmunitate-sistema
- Gaixotasunak

# bizitza

2.200 galdera giza gorputzari buruz



39€

Harpidedunentzat

35€

Eskaerak: 943 36 86 61  
info@luditoys.com

Ludi**toys**

www.luditoys.com

**"Egin jolas giza gorputzari buruz  
beti jakin nahi izan duzuna ikasiz"**



## Hezkuntza munduko pertsona guztien eskubidea dela onartua dago. Zer egiten ari da hori lortzeko



1945ean, Unesco fundatu zuten herrialdeek konstituzio bat sinatu zuten, eta “berdintasunean oinarrituta, hezkuntza pertsona guztien eskura jarri beharraz” jabetzen zirela adierazi zuten konstituzio horretan. Harrezkeroztik, Unescoren zereginetako bat aukera horiek egia bihurtzeko benetako ahalegina egitea izan da. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak ere halaxe dio: “Pertsona orok du hezkuntza eskubidea” (26. atala). Urte asko pasatu dira ordutik, eta asmo horri berorri heldu zaio urte horietan guztietan: pertsona bakoitzari ikasteko eta oinarrizko irakaskuntzaren



**Marta ENCINAS-MARTÍN**  
DOKTOREA. UNESCOREN ORDEZKARIA

onuz gozatzeko aukera ematea eta ez ausaz gertatutako gorabeherek horretarako bidea eman dutelako edo pribilegioa delako, eskubide delako baizik.

### Guztionezko Hezkuntza Eskubidea guztion kontua da

Unescoren eta Nazio Batuen Erakundearen barneko beste lau erakunderen ekimenez (Unicef, Nazio Batuen Haurren Laguntzarako Funtsa; NBIP, Nazio Batuen Ingurumen Programa; UNFPA, Populazio Gaietarako Nazio

Batuen Funtsa; eta MB, Munduko Bankua), 1990. urtean, mundu osoko hainbat herrialde Jomtien-en (Thailandia) bildu ziren, oinarrizko hezkuntzarako estrategia bateratu berri bat onesteko. 2000. urtean, 164 gobernu eta erakunde ordezkari Dakarren (Senegal) elkar-tu ziren, hamarkada horretan oso gutxi aurreratu zela ohartuta, orduan hartutako konpromisoa berresteko eta *Guztionezko Hezkuntzaren* sei helburuak onartzeko. Hezkuntzari buruzko ikuspegi global bat islatzen dute helburu horiek; besteak beste, haur txikiak zaintzea eta haur horien garapena lantzea nahiz gazte eta helduak alfabetatzeko eta bizitza aktiborako behar dituzten gaitasunak barneratzeko aukera ematea.







## Guztiontzako Hezkuntza ezinbestekoa da garatzeko

Hezkuntzak pertsona eta komunitate guztieizabaltzen dizkie ateak. Guztiontzako Hezkuntzaren helburuak ez ezik, 2000. urtean adostutako Milurteko Helburuak lortzeko ere oinarri-oinarrizkoa da hori, horixe delako bidea haur, gazte eta helduei ondo funtsatutako erabakiak hartzeko aukera emango dieten ezagutzak eta eskumenak helarazteko, horien osasuna eta bizi maila hobetzeko eta ingurumen seguru eta iraunkorra lortzeko. 1996an Delors txostenak azaldu zuenaren ildotik, hezkuntzak izaten, ezagutzen, egiten eta elkarrekin bizitzen ikasteko aukera ematen digu. Hau da, kalitatezko hezkuntzak gizaki garen aldetik ditugun ahalmenak ahalik eta gehien garatzeko bidea ematen digu. Bakea, duintasuna,

## Nesken artean, eskolara inoiz ez joateko arriskua

askoz ere handiagoa da mutilen artean baino, eta eskolatu

gabeko nesken kopurua egoera horretan dauden mutilena baino dezente handiagoa da.



justizia eta berdintasuna ardatz izango dituen mundu bat eraikitzea hainbat faktoreren mende dago, eta, zalantza izpirik gabe, kalitatezko hezkuntza da garrantzitsuenetako bat.

## Guztiontzako Hezkuntzaren helburuak

### 1. helburua. Haur txikien zainketa eta hezkuntza zabaltzea

Elikadura okerra edo malnutrizioa sufritzen dute munduan 5 urtetik behe-rako hiru haurretik batek, eta horrek, luzerora, kalte handia eragiten dio, bai hezkuntzaren ikuspegitik eta bai Lehen Hezkuntza unibertsal bihurtzeko munduan egiten diren ahaleginen ikuspegitik ere. Haur txikiei eskaintzen zaizkien arreta eta zainketetan aldeek jarraitu egiten dute, batez ere, familien diru sarreraren eta gurasoen heziketa mailaren ondoriozkoek. Eskolaurreko irakaskuntzan, matrikulazio tasak oso txikiak dira oraindik garapen bidean diren herrialdeetan (eskolaurrean, haurren % 36 doa eskolara batez beste).

### 2. helburua. Nahitaezko eta doako lehen hezkuntza eskaintzea guztiei

Garapen bidean diren eskualdeetan, matrikulazioak gora egiten jarraitzen du Lehen Hezkuntzan, eta, arlo horretan, aurrerapen handiak egin dira Saharaz hegoaldeko herrialdeetan eta Hegoaldeko eta Mendebaldeko Asian. Eskolatzeko zergak kentzeak izugarriko eragina izan du hainbat herrialdeetan, Etiopian, Kenyan eta Tanzaniako Errepublikan, esate baterako. Hala ere, doako Lehen Hezkuntza unibertsala ez da oraindik egia bihurtu, ez horixe. Munduan, oraindik, 75 milioi haur eskolatu gabe daude: horietatik % 55 neskek dira, eta ia % 50 Afrikan bizi di-

Hezkuntzari buruzko ikuspegi global bat islatzen dute helburuek; besteak beste, lehen haurtzaroko haurrak zaintzea eta haur horien garapena lantzea nahiz gazte eta helduak alfabetatzeko eta bizitza aktiborako behar dituzten gaitasunak barneratzeko aukera ematea.



## Gaur egun, kalitatezko hezkuntza da herrialdeen lehentasun nagusia, nazioartean, eskualdeetan eta herrialdeetan



### eskolari ateratzen zaion etekinari buruz egin diren ebaluazioek argi erakusten baitute lehen hezkuntzako haur askok lehen mailetan ez dutela lortzen irakurketa menderatzea.

ra, Saharaz hegoaldeko herrialdeetan. Familia pobreetako haurrek, nekazaritza inguruetakoez eta hirietako auzo txiroetakoez dituzte zailtasun handienak, bai eta talde pobreenetako kideek ere.

#### 3. helburua. Gazteei eta helduei begira, ikasteko eta eguneroko bizitzarako behar dituzten gaitasunak eskuratzeko programak sustatzea

Gobernuek ez diete behar besteko lehentasuna ematen gazteek eta helduek ikasteko dituzten oinarritzko gaitasunei eta beharrei. Bigarren Hezkuntzaren hedadura eta kalitatea ez dira egokiak. Maila horretan gradua eskuratzaren duten gehienak zuzenean lan mundura doazela kontuan hartuta, gobernuek, enplegatzaileek eta sindikatuek kalitatezko irakaskuntza programa teknikoak eta lanbide ikasketakoak landu behar dituzte, eskolaren eta lan munduaren arteko desorekak saihesteko.

#### 4. helburua. Helduen alfabetatze maila % 50 handitzea

Guztionezko Hezkuntzaren helburuen barnean, helduen alfabetatzean jartzen da arreta gutxien. Munduan,

pertsona helduen artean, 776 milioi analfabeto daudela kalkulatzen da. Gaur egun nabarmentzen ari diren jorrek jarraitzen badute, 2015. urtean munduan idazten eta irakurtzen ez dakiten 700 milioi heldu egongo dira. Analfabetoen %80 hogeiren bat herrialdeetan bizi da, eta horietatik erdia baino gehiago, lau herrialdeetan (Bangladesh, Txina, India eta Pakistan). Munduan alfabetatu gabe dauden pertsonen artean, bi heren emakumeak dira oraindik.


#### 5. helburua. 2005ean, hezkuntzan sexuen arteko parekotasuna lortzea, eta, 2015ean, berdintasuna

Garapen bidean diren herrialdeetako neska askok oraindik ere ez du hezkuntzak eskaintzen dituen aukeraz gozatzeko modurik. Nesken artean, eskolara inoiz ez joateko arriskua askoz ere handiagoa da mutilen artean baino, eta eskolatu gabeko nesken kopurua egoera horretan dauden mutilena baino dezente handiagoa da. Gutxi gorabehera, herrialdeen bi herenek lortu dute Lehen Hezkuntzan nesken eta mutilen arteko parekotasuna, baina, Bigarren Hezkuntzan, soilik herrialdeen % 37k lortu du helburu hori bera. Dirulaguntza programei, komunitateetako sentiberatze kanpainei, zerbitzu higienikotan egin diren hobekuntzei, ikasleengandik gertu dauden eskola eraikinei eta beste neurri batzuei esker, sexuen arteko desberdintasuna murriztu egin da. Hala ere, Saharaz hegoaldeko zenbait herrialdeetan eta Pakistanen, Lehen Hezkuntzan matrikulatutako 100 mutilako 80 neska edo gutxiago daude.

#### 6. helburua. Hezkuntzaren kalitatea hobetzea


Lehen Hezkuntzan dabilzan haurren kopurua izugarri hazi bada ere, haurrek ez dute jasotzen merezi duten kalitatezko hezkuntza. Gaur egun, kalitatezko hezkuntza da herrialdeen lehentasun nagusia, nazioartean, eskualdeetan eta herrialdeetan eskolari ateratzen zaion etekinari buruz egin diren ebaluazioek argi erakusten baitute Lehen Hezkuntzako haur askok, lehen

mailetan, ez dutela lortzen irakurketa-prozesuaz jabetzea; eta ezinbestekoa dute hori ikasten jarraitzeko. Hezkuntzaren kalitateari begira, alde nabarmenak daude, bai herrialde aberatsen eta pobreen artean, bai herrialde bakoitzaren barnean. Asian eta Afrikan garapen bidean diren zenbait herrialdeetan, ez dituzte nahikoa maisu-maistra, ez eta oinarritzko baliabideak ere: argindarra, ura, ikasmahaiak, aulkiak eta eskola liburuak, adibidez. Mundu guztian, Lehen Hezkuntzako maisu-maistrak 27 milioi baino gehiago dira. Horietatik %80k garatutako herrialdeetan lan egiten du. 10,3 milioi maisu eta maistra gehiago beharko dira, 2015. urterako kalitatezko Lehen Hezkuntza Unibertsala lortu nahi bada. ●





Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.




Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

azaroa

berriak

# Keinuka mugaz gaindi... Kubaraino! 2010-2011 ikasturteko elkartasuna



“Ane, Monna, Oskola eta Karramarroi” antzerki taldeak eta “Kurkuluxetan” arte eszenikoen eskolak elkartasun egitasmo berria aurkeztu dute. Izan ere, antolatzaileen esanetan, “antzerki-gintza ez da adierazteko tresna artistikoa soilik, pentsamendua, ideiak, bizi-penak, sentsazioak eta sentimenduak partekatzeko ere balio du”.

Elkartasuna nori adierazi aukeratzeko garaian, hainbat gai hartzen dituzte kontuan: Euskal Herriarekiko hurbiltasun historikoa, transmititu nahi diren balioekiko identifikazioa, arlo sozialean eta kulturean elkarri zerbait ekartzea... Azken finean, bi herrien arteko hauren adiskidetasuna sustatzea da helburua. Horrela, egitasmo honetan Kubarekin jarriko dira harremanetan eta bi herrialdeen arteko elkartasuna landuko dute.

Parte hartu nahi duten ikastetxeek eginda, “Adiskidetasunaren liburuak” sortuko dira, eta hara eramango dira

haien aurkezpenak gauzatzeko. Hangoek egindako beste liburu batzuekin trukatuko dira, hemengo ikastetxeetan haien lanak ezagut ditzaten. Horrekin batera, hainbat bitarteko erabiliz, haurren arteko harremana erraztu nahi da.

## Parte hartzeko eman beharreko pausoak

Parte hartu nahi duen eskolak, ikastetxeak edota ikastolak jar daitezela harremanetan antolatzaileekin. Dena den, ondoren agertzen diren oinarriak bete behar dira.

### Oinarriak

- Izena emateko epea: azaroaren 24a.

- “Adiskidetasun liburua”: 8-12 urte bitartekoek egin ahal izango dute. Gabonak aurretik amaituta egon behar du. Harremanetarako hizkuntza grafiko-bisuala izan behar du (argazkiak, marrazkiak...). Behin izena emanda,

erreferentziatzeko gidoi bat pasatuko da.

- Ikastetxe bakoitzak, gehienez, hiru liburu egin ahal izango ditu.

- Parte hartzen duen ikastetxe bakoitzak 200 euroko diru laguntza jarriko du.

### Informazio gehiago:

[umegune@zenbatgara.org](mailto:umegune@zenbatgara.org)  
Tel.: 662 472 746






# KEINUKA MUGAZ GAINDI

## 2010-2011 IKASTURTEA



**ANE MONNA, OSKOLA ETA KARRAMARROI  
EUSKAL HERRIKO ETA KUBAKO HAURRAK HURBILTZEN**



Antolatzailea :

Kooperatzaileak :

**KUR KULUXETAN**  
KULTUR ELKARTEA

EUSKADI \* CUBA

hh  
hik hest

urbintxa  
ESPAINIA

IBAIZABAL  
TELEBISTA  
www.ibaizabalts.com

kafe  
antzokia  
www.kafeantzokia.com

www.bilboheria.com  
BI-96.0-FM  
8460 Hiri Irratia



# Herriko ondare kulturala transmititzen

## 3 unitate didaktiko aurkeztu dira Arrasaten



Arrasateko Udalak, herriko ikastetxeekin eta Hik Hasirekin elkarlanean, herriko ondare kulturala transmititzeko 3 unitate didaktiko argitaratu berri ditu. Lehen Hezkuntzari begira 6 unitateko bilduma egiteko asmoa du, ikasturte bakoitzerako bana. Horrela, oraingo horiei beste hiru gehituko zaizkie. Haiek, 2011ko maiatzerako prestutuko dituztela uste dute.

Unitate bakoitzak, gainera, bere gida didaktikoa darama, hezitzaileei laguntzeko asmoz.

## Identitate sexuala

### Transexualitatea

Azaroaren 13an, larunbata, “**Hezkuntzan Aniztasun Afektibo-Sexuala**” jardunaldia egingo da Donostiako Berritzegunean.

Hiru bloketan sailkatuko da jardunaldia:

**1. Oinarrizko teoria** (erreferentzia-hitzak, sexuari buruzko aldagaiak, sexuazioaren logika).

**2. Sexologia ebolutiboa** (nerabezaroa eta bere papera hezkuntza afektibo-sexualean).

**3. Proposamen metodologikoak** (gelan eta taldean, aholkularitza).

Hizlaria: *Silberio Sáez Sesma*. Amaltea sexologia eta psikoterapia institutuko psikologo-sexologoa.

Orduategia: 10:00-14:00 eta 16:00-18:00. Prezioa: 10 euro

**Informazio gehiago: [hdh@gehitu.org](mailto:hdh@gehitu.org) edo 943 468 516**



## “Ikastola mugimendua. Dabilen herria” liburua

Ikastola mugimenduaren azken berrogeita hamar urteotako ibilbide oparoa jorratzen duen liburua *Ikastola mugimendua. Dabilen herria*-kaleratu berri dute Euskaltzaindiak eta Ikastolen Elkarateak Jagon bildumaren barruan.

Liburu horretan, pasa den mende-ko lehen erdialdeko esperientziak bainoago -horiei buruz zenbait zertzelada ere eskaintzen dira-, Frankoren dikta- durapean abiarazi zen ikastola mugimenduaren hastapenak, nahiak, ezin- nak, ilusioak, eztabaidak eta batez ere bilakaera jasotzen dira, besteren arte- an, ibilbide horretan bidelagun suertatu diren hainbatentestigantzak harilkatu- tuz eta haritzat hartuz.

### Herri borondatearen isla

Euskararen eta euskarazko irakas- kuntza, euskalkiak eta euskara batua- ren auzia, laikotasuna, Frantzian eta Es-

painian azken berrehun urtetan inda- rrean egon diren Hezkuntza Sistemen aldamenen eredu propio bat hezur- mamitzeko borondatea, proiektuak, eztabaidak, zatiketa mingarriak, iritzi kontrajarriak, testuinguru politikoaren eragina, ... nahiak eta ezinak ... ustez utopikoak diren xedeetara hurreratzeko hainbat herritarren borondate irmoa islatzen du liburuaren edukiak. Izan ere, ikastolak herriaren isla ere badira.



# HAUR TXIKIEN MUGIMENDUAREN BEHAKETA



*Jardunaldiak*

Azaroaren 5ean (ostirala) DURANGON. Zugaza zineman

Azaroaren 6an (larunbata) DONOSTIAN. EHUko Ignazio Maria Barriolan (aularioa)

\* **Myrtha Hebe Chocler.** *Buenos Aireseko (Argentina) Psikomotrizitate Eskolako zuzendaria. Psikologian eta Fonoaudiologian doktorea den emakume argentinar hau Fundari (Umeen Eskubideen Aldeko Fundazioa) erakundeko zuzendaria da. Kargu bera du Buenos Aireseko (Argentina) Catamarcako Unibertsitate Nazionaleko Umeen Garapenaren Arreta Goiztiararen ikasketetan.*  
- Mugimendu askatasunaren garrantzia subjektibitatearen genesi goiztiarrean. Haren baldintzak eta arriskuak.

\* **Elena Herran.** *EHUko irakaslea. Maistra, Psikomotrizitatean espezialista eta Psikologian doktorea. Urteak daramatza haur txikien ikerketak egiten.*  
- **Jauzia, otsoa eta etxetxoa.** 2 urtekoekin egindako esperientzia.  
- **Egoeren hausnarketa.** Arrastaldeko saioan.

informazio osoa eta izena emateko aukera: [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)  
943 371 408



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...

**>>> Seaskako ikastolei ikastetxe pribatuen trataera eman nahi die Philippe Rey prefetak, lagundu nahi duten herriko etxeak mehatxatuz. Seaskako Paskal Indo lehendakariak, aldiz, beraiek zerbitzu publikoa betetzen dutela dio. Eta, zuk zer diozu?**

**> Kalitatezko zerbitzu publikoa**

Seaskak zerbitzu publikoa betetzen duela ezin da ukatu. Iparraldean, irakaskuntza euskaraz eskaintzen duten eskola bakarrak dira Seaskakoak. Denok garbi dakigu bizi garen egoeran euskaraz ikasten ez bada, ez dela euskara maila nahikoa hartzen. Horregatik, Seaskak betetzen duen zerbitzu publikoak finantzaketa aldetik ere, trataera publikoa jaso behar du. *Mikel E.*

**> Betikoan gaude**

Bai, betikoan gaude. Ez da zuzena publiko eta administratibo hitzak baliokidetzea. Publiko, herriarena zena, administrazioa jabetu da. Horrela, publiko esatean, badirudi administrazioa esaten ari dela. Bi kontzepuak oso desberdinak dira. Administrazioarena izan liteke eta ez bete zerbitzu publikoa. Hau da, ezizatea herritarren onurako edo bere zerbitzurako. Adibide mila daude, norberaren ingurura begiratzea besterik ez dago.

Hemen, Euskal Herrian, zenbat inizatiba herritar, herritarren zerbitzura sortuak, pribatuak kontsideratzen dira. Herritarren zerbitzura sortu, ahalegin handia eginda, inongo interes pribaturik gabe, eta administrazioaren jabetza ez duelako pribatutzat jotzen da.

Gure herriak beste eredu bat behar du; dinamikoa, inizatibari eta zerbitzu publikoari bidea emango diena. *Ainhoa Urko*

**> “El Mundo” egunkariaren ziria**

“El Mundo” egunkariak bere orri digitalean inkesta bat jarri du. Han, Seaskari Eusko Jaurlaritzak lagundu behar dion ala ez galdetzen du. Une honetan, inkestaren emaitza hauxe da: % 96 bai eta % 4 ez.

Ez dakit zer asmorekin egin duen inkesta aipatu egunkariak, baina ikastolak berriro ere erasotzeko tresna nahi bazuen, ez zaio batere ongi aterata. Dena den, helburua euskal hezkuntza erasotzea bada, beste trikimailu eta bide batzuk erabiliko dituela ziur izan.

Seaskaren kasuan, garbi dut Hegoaldetik lagundu behar zaiela, Frantziako estatu txobinistak eta zentralistak ikastolen normalizatorako trabak jarriko baititu.

Hegoalden ikastolen egoera ez badago normalizatua, zer esan Iparraldean, ala, antzeko egoeratan al daude? *Maite E.*

## Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

**>>> Berdina mantenduko da.**

## Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoan Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoan harpidetu besterik ez duzu egin behar. [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!



# argitalpenak



## Ni naizen guztia

Arrate Egaña / Mari Mar Agirre  
EREIN

Egunean zehar, inguruak bultzatuta, gure nortasunak aldaketa asko izaten ditu. Goizean logure nagonean, ikastolako lehen orduan ezin esnaturik nagoenean, ahulen defendatzaile eta tripontzia ere izaten naiz, parkeko jolas guztietan aktore, ...guztiak nire barruan daude. *Sasi Guztien Gainetik* saileko 21. liburua, Mari Mar Agirrek ilustratuta. •



## Otso gosetua

Amaia Hennebutte / Lontxo Yriarte  
IKAS


*Hiru Otso* izeneko trilogiako ipuinetako bat da. Otso, tripontzi samarra da eta benetako oilaskoa jan nahi luke, eta saiatzen da, baina jendarte moderno eta hiritarrean ez da horren erraza. 6 urtetik gorako haurrentzako modukoa da eta [www.ikas.org/hiruotso.php](http://www.ikas.org/hiruotso.php) web orrian ahozko bertsio musikatua eta ustiapen pedagogikorako proposamena aurki daitezke. •



## Amaia Lapitz

Katixa Agirre  
ELKAR

Amaia Lapitzek ama arkeologoa lagundu beharko du Palenquera, Mexikora. Bertan, deskubrimendu izaugarria egingo du: aztarnategiko zuzendariaren gorpuarekin egingo du topo. Poliziak gauzak argitzeko baino interes gehiago daukanez errua indigena zapatistei leporatzeko, Mario izeneko lagun egin berriaren laguntzaz kasua argitu beharko du gure protagonistak. •



## Arbela

Hezkuntza aldizkari  
BARAKALDOKO BERRITZEGUNEA

Barakaldoko Berritzeguneak iaz "Lan kooperatiboa, elkarrekin hobeto" izenburupean antolatu zituen 23. jardunaldi pedagogikoetan aurkeztutako hitzaldi eta esperientziak bildu dira 42. ARBELA honetan: Aurreko aleak bezala, [www.bgune04.net](http://www.bgune04.net) web orrian ikusgai dago. •



## Katalina kontalaria

Iñaki Zubeldia / Estibalitz Jalón  
PAMIELA

Mendiko belaze batean txitxar zahar bat bizi zen, Katalina. Oso berritsua zen eta aintzinako istorioak kontatzen zizkien bere bizilagunei. Ipuinak Haurrentzako Euskarazko Album Irudidunetarako III. Etxepare beka irabazi zuen eta uda hasieratik dago liburudendetan. Estibalitz Jalonen marrazkiekin girotzen da. •



## Egiteko prest!

Gurasoentzako aldizkaria LEA-ARTIBAI AMANKOMUNAZGOA Lea-Artibaiko gurasoentzako aldizkariak autoestimua hartzen du gai bakartzat udazkeneko alean, mentuz, azkena izango dena. 0-5, 6-11, 12-18 urte bitarteko neska-mutilen ezaugarriak kontuan hartuta adituek argibide langungarriak ematen diete gurasoei. [www.lea-artibai.org](http://www.lea-artibai.org) web orrian eskuragai. •

# ... nora joango gara?

## Itsas Eskola

### Lekeitioko “Trinkete Etxea” aterpetxean

**Trinkete Etxea** aterpetxea Lekeitio udalerrizko zoragarriaren erdialdean dago.

Lekeitioko aterpetxeak hainbat gairi buruzko ikastaroak eskaintzen ditu, egun batetik bestera bitarteko egonaldietan:

- **Arrantza.** Itsas eskola, arrantza-ren mundua eta horren ingurua; teknika eta ogibideak, lehengo eta oraingo ekonomia eragina.

- **Historia.** Gure herriaren historiari jabetzea eta bizitzea, portuak Lekeition izan duen eragina.

- **Kultura, ohiturak eta euskara.** Ohiturak ikertzea eta horietaz gozatzeko, gure kirolez jabetzea eta haietan aritzea, gure kultura ikastea eta bizitzea...

#### Helburuak

- Euskal Herriko kostaldeko herrietako ezaugarriak aztertzea.

- Kostaldeko paisaiak eta hango elementuak ezagutzeko.

- Gizakion jardueren kostaldeko ekosistemetan dauzkaten eraginak ezagutzeko.

- Paisaia “irakurtzen” ikastea.

- Lekeitio inguruko ekosistema esanguratsuenak aztertzea (padurak, hondartzak, itsaslabarrak, kantaulari artadia...).

- Kostaldeko herrietako jardueren ekonomikoak lantzea, “harrapaketa, eraldaketa eta salmenta” prozesuak ulertzeko.



- Lekeition burutuko duten egonaldian euskaraz (Lekeitioko hizkuntza nagusia) bizitzea.

- Egonaldian, dinamiken bitartez, talde kohesioa, integrazioa eta elkarbizitza jarrera egokiak lantzea.

- Kostaldeko herritarren bizimoduak ezagutzeko.

- Lekeitioko arrantza azpiegiturak ezagutzeko.

- Lekeitioko historiari herriko paisaian utzi dituen aztarna nagusiak ulertzeko.

- Lekeitioko ondare artistiko eta historikoa ezagutzeko.

- Uraren indarra energia bihurtzeko gizakiak erabili dituen moduak bertatik bertara ezagutzeko.

- Ingurunearekiko eta garapen iraunkorarekiko atxikimendua lantzea.

- Desberdinak diren hizkuntza, herritar, bizimodu, ohitura eta kulturekiko errespetuzko jarrerak sustatzea.







## Hezkuntza programak

Hezkuntza programak ziklo bakoitzerako eskola curriculumetik ateratako helburuetan oinarritzen dira. Eskola etapa bakoitzak dagokion une ebolutiboaren arabera jarduera bereziak edukiko ditu:

**Hezkuntza jarduerak:** lantegiak, ikerketa teknikak...

**Bisitak:** arrantza ontzia, kontserba lantegia, eraikin bereizgarriak...

**Animazioa eta astialdia:** atari zabaleko jokoak, lantegiak, antzerkia...

Hezkuntza programak diziplina anitzeko taldeak garatzen ditu, eta taldekideak euskaldunak dira, gizarte zein hezkuntza arloko prestakuntzak dituzte (pedagogia, irakasle ikasketak, animazio soziokulturala), abentura kirolean dira adituak eta proiektua aberastu egiten dute, espezialitate bakoitzetik egindako ekarpenen eta talde lanaren bitartez.

## Ikastetxeei egokitutako programak

Lekeitioko Trinkete Etxea aterpetxeko "Itsas Eskola" programak berritasun nabarmenak ekarri ditu: batetik, Hondarzabal Hondartza Museo Itsasontzian sartu direnak, eta, bestetik, programako berrikuntzarik nabarmenena, Santa Katalina Interpretazio Zentro berria bisitatzeko aukera.

Ikastetxeen interesen arabera programa bereziak ere presta daitezke. ●

## TRINKETE ETXEA

Eusebio M<sup>a</sup> de Azkue, 5  
48280 Lekeitio - Bizkaia  
Tel.: 902 540 450  
trinkete@suspergintza.net  
www.trinkete.net



### Oharrak:

56 lagunentzako lekua dauka, 2, 4, 5, 6 eta 7 lagunentzako logeletan banatuta. Bi solairuetan, gizon eta emakumeentzako bainugela bateratuak daude.

Aukerak: ostatua eta gosaria, mantenu erdia eta mantenu osoa.

- Elbarrientzat egokituta.
- Txartel bidezko ordainketa.
- Egongela.
- Garbilekua.
- Jarduera gelak.
- Internet gela.
- WIFI-a dohainik aterpetxe osoan.
- Hondartza eta igerilekua.
- Kirol pista.
- Janari zerbitzua.

## PROGRAMAK

### Ikastetxeei egokitutako programak

Lekeitioko Trinkete Etxea aterpetxeko "Itsas Eskola" programak berritasun nabarmenak ekarri ditu: batetik, Hondarzabal Hondartza Museo Itsasontzian sartu direnak, eta, programako berrikuntzarik nabarmenena, Santa Katalina Interpretazio Zentro berria bisitatzeko aukera.

Ikastetxeen interesen arabera programa bereziak ere presta daitezke.

### Balioetan oinarritutako hezkuntza

Ikastetxean eta ikasgeletan bizikidetza lantzeko premia zegoela adierazi zuten ikastetxeek, eta, ikuspegi integraletik, eskaera horri erantzutea du helburu hezkuntza mota honek. Horretarako, inplikaturako ikastetxeetako taldeekin lan egiten da.



# atzeko atetik



**Joseba BARANDIARAN**

EKONOMILARIA

Ikastolara bidean harrika. Errekako urari, Etxetorreko kristalei edota elkari. Ainhua, Eneko eta hirurok. Hori da gogoan dudan lehen borobila, lehen taldea. Galtza motzak eta Legazpi, mundu. Kimu Berri ikastola; izena eta izana.

Hurrengo borobila, gela izan zen, gelakideak. Errekreoan, patioko oiha-nean, taldearen abaroa gelakideek eskaintzen zuten. “Beste gelakoak” arrotz baziren, zer esanik ez “handiak”. “Txikiak” ez ziren existitzen. Bihurrikeria genuen lanbide; Andereño Karmele aingeru goardako.

Beste borobil kontzentriko bat: OHOn, harriduraz, maila ezberdineta-ko jendetza. “Ikastolakoak” talde hura

## Urari harrika

handitzen zihoan, munduarekin bat. “Domingo” edo “La Salle”koak arerio baino etsai genituen; Zumarraga-Urretxuko ikastola ere bazela erakutsi zigun futbitoak. Batzen gintuen “ikastola” baino, banatzen gintuen herritartasuna zen orduan nagusi. Kimu Berri Haztegi birbataiatu zuten gero; harrobi. Bertso-lari batzuk ikusi genituen behin Joxe Marik ekarrita.

Lehen harrikadatik, uretako borobilek indarra galdu zuten. Lizeo garaian, taldea eta lagunak ikastolarekin lotzen zituen zera lausotzen joan zen; bizipena oroitzapen gisa lurmentzen. Garaialdetik garaiz alde egin eta gutxira, ikastola, nagusiki, kurtsokide izandakoekin, irakasleekin eta euskararekin lotzen nuen; atzekoz aurrerako hurrenkeran baina. Finean, ikastola orokoragoaren azpimarra indartu zen, herriaren izen edo aurpegi zehatzez harago. *Kilometroak* festa batek Legazpin inoiz izan den jendetza handiena paratu zigun begibistan. Neuk 2.600 kilometroko joan-etorria egin nuen aste-buru hartan.

30na laguneko 3 gela izan ginen. Maskor hartan bazen perlarik, bazen prendarik. Asier, Yago, Unai... ordukoak dira. Facebook gabeko lagunak. Izenaren aurretik “Andereño” zuten Kertxus, Karmele, Arantxa, Kontxi, Loli, Lurdes... haiek guztiak ere ez dauzkat ahazteko. Ezta geroagoko Joxe, Maria-jesus, Arantxa, Asun eta konpainia ere. Gerora “maixuago” ikusi eta aitortu ditut, maixu-maistra nituen garaian bertan baino. Bitxia, jaurtitako harria urpean ezkutatzean zein ederra den pentsatzea bezala da.

Lehen harrikada, euskarari betiko lotu gintuena, gurasoena izan zen. Gure aitak burlaizez “Bai euskarari!” esanda mozten gintuen, diglosiak gaztelania mingaineratzen zigunero. Gure amaren euskara azkoitieratik euskañolera lerratzen denean ere, ironia jasotzen du. Finean, txiki-txikitako oroitzapenak, itzuliko ez den hazkuntza eta hezkuntza garai bat. Orduko zirkulu kontzentrikoak, dabilen harria eta herria, Abusun dabilta orain. Bilbo handi-handian. ●



**Beste garrasi bat bota nahirik dabilta haurrak: “jolasak maite dituzten irakasleak nahi ditugu”.**

Imanol Urbieta





ELHUYAR  
edizioak

# ELHUYAR 360° IKASGELA

## ELHUYAR FUNDAZIOKO NOBEDADEAK 2010-2011 IKASTURTE BERRIARI BEGIARA

### IKASGELA BARRUAN



#### MUNDUKO ETA EUSKAL HERRIKO ATLASA

Geografikoa eta politikoa.  
2010eko edizio berria.  
12-16 urte  
**26€**



#### ELHUYAR SINONIMOEN KUTXA

Sinonimoen eta antonimoen hiztegia.  
3. edizioa, osatua eta berria.  
**19,50€**



#### ARMIX MAX-MIX

**Zz**  
Esperimentu-  
bilduma.  
8-10 urte  
**10€**



#### SIMON BLOOM, GRABITATEAREN ZAINDARIA

**Z+1**  
Michael Reisman  
Gazteei zuzendutako  
dibulgazio-narratiba.  
12-16 urte **12€**



#### IA DENAREN HISTORIA LABUR BAT

**Z** izpiak  
Bill Bryson  
Helduentzako dibulgazio-  
obra unibertsala.  
16 urtetik gora  
**15€**

Informazio gehiago eta eskaerak: [www.elhuyar.org/edizioak](http://www.elhuyar.org/edizioak) [eskaerak@elhuyar.com](mailto:eskaerak@elhuyar.com) 943 36 30 40

*Eskoletarako prezio bereziak ditugu.*

### IRAKASLEENTZAKO IKASTAROAK

Elhuyar Fundazioko Hizkuntza Zerbitzuen taldeak eskainita. IRALE programaren barruan % 100 finantzatuta daude.

- **ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN ALORREKO TERMINOLOGIA TEKNIKOAREN ETA ADIERAZPIDE BEREZIEEN LANKETA**
- **GOI-MAILAKO HIZKUNTZA-GAITASUN PRAKTIKOA (BEREGAITASUN-MAILA)**
- **ITZULPEN-TEKNIKEN EZAGUTZA TEORIKOA ETA GAITASUN PRAKTIKOA**
- **INFORMATIKA EUSKARAZ**

Ikastaroen eskaerak zuzenean IRALE programaren bitartez egin behar dira.

Informazio gehiago: [hz@elhuyar.com](mailto:hz@elhuyar.com) 943 36 30 40



# “Ahozko hizkuntza lantzen” 25. monografikoa kalean



Harpidetuz gero,  
monografiko honekin batera  
aurreko beste monografiko bat  
eta Baliabideen Gida DOAN